



UNTZU

BELTZUNTZE

SOLSTIZIOEN INGURUKO OSPAKIZUNAK NAFARROAKO ZENBAIT HIZKERATAN EMANAK

ERRITUEN ZABALERA ETA OSPAKIZUNEN HARI EZBERDINAK

Koldo Artola Kortajarena

SAIGOTS



IMOTZ



ESPARTZA

LARUNBE

ARRARATS

ETXARRI~ARANATZ

AURITZ

ITZALTZU

ARRUAZU



OLATZAGUTIA

ZIA



EKAI

ALTSASU

MURGINDUETA



LATASA

USETXI

ARRARATS



URRITZOLA



ARANZADI
ETNOGRAFIA
BILDUMA

NAGORE

URTASUN

1

LATASA



SOLSTIZIOEN INGURUKO OSPAKIZUNAK NAFARROAKO ZENBAIT HIZKERATAN EMANAK

ERRITUEN ZABALERA ETA OSPAKIZUNEN HARI EZBERDINAK

Koldo Artola Kortajarena



ARANZADI ETNOGRAFIA BILDUMA



Zorroagaina, 11
20014 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 466142
e-mail: idazkaritza@aranzadi.eus
www.aranzadi.eus

Egilea: **Koldo Artola Kortajarena**

Aranzadi Etnografia Bildumaren Zuzendaria: **Fermin Leizaola Calvo**

Edizioaren Koordinazioa: **Juantxo Agirre Mauleon**

Edukiaren Zuzentzailea: **Karlos Almorza**

Maketazioa: **didart**

Inprimategia: **Michelena A.G.**

Aranzadi Etnografia Bilduma: 01

ISSN 2660-5864

ISBN 978-84-17713-31-7

LG D 00562-2020

Eskerrak: Argitalpen honetarako testigantza eman duten guztiei.
Aipatzen diren udal eta herriak. Nafarroako Gobernua - Euskarabidea.

Grabatutako testigantzak Ahotsak.eu atarian entzun ahal dira
(<https://ahotsak.eus/proiektuak/solstizioen-inguruko-ospakizunak/>).



HITZAURREA

Liburu honen egilea, Koldo Artola Kortajarena, euskalkien ahozko lekukotasunak sistematikoki aztertzeaz eta biltzeaz interesatzen den lehen aldia ez da.

Jakina denez, ahozko lekukotasun hauetako asko desagertu egin dira, gehienak joanak dira, haietako batzuk magnetofono batekin erregistratu baitzituen duela 40 urte baino gehiago, ordurako adinean aurrera zihoazen gizon-emakumeen artean; eta gaur egun, zoritxarrez, lekukotasun horiek jasotzea ezinezkoa da, euskalkiaren azken hiztunak joanak direlako.

Esaterako, Erronkariko ibarraren iparraldean jasotako erregistroak; izan ere, 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70eko hamarkadaren hasieran, euren ama-hizkuntzan (erronkarieraz) mintzo ziren zenbait hiztun artean baziren.

Egileak, euskara kontuetan aditua zen lan-talde batekin batera, gogor jardun zuen inkesta etnolinguistikoko zabala bete nahian, 600 galdera inguru baitzituen; inkesta hau Pariseko Gizakiaren Museoak eskuratu zigan 1973. urtean eta Marcel Cohen hizkuntzalariak idatzi zuen. Proiektu hau gauzatzeko 212 inkesta egin ziren eta inkestagile asko eta asko ibili ziren Euskal Herriko euskalkien berezko eremuetan zehar; gero, bi liburukitan eman zen argitara, eta euskalkiak ondo ordezkatzeko zituzten 80 inkesta bakarrik jaso ziren bertan. Datu-bilketa eta datuen tratamendu bateratua lan gaitza izan zen eta bigarren liburukia 1990. urtean argitaratu zen arte iraun zuen. EUSKALHERRIKO ATLAS ETNOLINGUISTIKOA -EAEL- horrenbestez amaitutzat jo zen.

Nafarroako eskualde euskaldunetan mintzo den euskaraz interesaturik eta urteetan zehar eskuratu zuen esperientziaz baliaturik, 2014. urtean “*Ziorditik Uztarrozeraino*” obra plazaratu zuen hiru liburukitan, Nafarroako euskararen hegoaldeko mugan herrietako informatzaileengandik euskalkiak eta azpieuskalkiak jasoz.

Nafarroa iparraldeko hainbat ibarretan, besteak beste, Erro, Zaraitzu, Aezkoa edota Esteribar aldean, inkesta linguistikoak egiten burutu zuen lan zabal

eta zehatza ere ezin dugu ahaztu. Lan horiek urtero eman dira argitara Nafarroako Gobernua-VPEaren aldizkarian. *Fontes Linguae Vasconum Studia et Documenta*.

“Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak – Errituen zabalera eta ospakizunen hari ezberdinak” izenpean, Aranzadiko Etnografia sailak atera berri duen argitalpenaren 1. zenbakia dugu liburuki hau, eta azken 50 urteotan lankide izan dudan egilea ezaguturik, esan beharra daukat, ezen, festa tradizionalak egituratu ohi dituzten udako eta neguko bi solstizioen inguruko erritu, kopia eta ohiturekin lotura estua duten alderdi oso interesgarriak jasotzen dituela.

Ohiturak —gaur egun askotan galduak— biltzeko lan egonarritsu eta zehatza oso dokumentu baliotsua da landa-eremuetako bizimoduak ikertu eta aztertzeko orduan. Batez ere, erritu horien ahozko transmisioa oso azkar galtzen ari dela kontuan hartuta.

Fermin Leizaola

Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Saileko Zuzendaria



AURKIBIDEA

Sarrera	7
Udako errituen inguruko gaiak lehen begiratu batean	11
Neguko errituen inguruko gaiak lehen begiratu batean	19
Laginen aurkezpena	21
Udako solstizioaren ospakizunak	24
Neguko solstizioaren ospakizunak	180
Bibliografia	302
Herriz herriko aurkibideak	304





San Juan bezperako sua Lakuntza herrian. GUAIXE

SARRERA



Soltizioak, gauza jakina denez, Lurra deitzen diogun gure planetak bere orbitan Serdiesten dituen punturik funtsezkoenak dira, ekainean eta abenduan, udarari zein neguari hasiera emanez.

Denboraldi berriztatu hauen abiadak, aitzinarotik, munduko hainbat lekutako herri-kultura ezberdinek handizki ospatu izan dituzte, harik eta Eliza kristauak izaera paganoko festa handi hauei izaera kristauko festen esanahia txertatu zien arte: San Juan Bataiatzailearen jaiotza, lehen kasuan, udararen hasierarekin uztartuz; eta, ebanjelioen arabera, Mesias gisa iragarritako Jesukristorena, bigarrean, abenduaren 25ean.

Felix Zubiaga aita pasiotar bizkaitarraren iritzia oso kontuan hartzekoa da. Berak idatzi **Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan** liburutik hartuta, lerro batzuk ekarri ditugu hona, garai bateko paganismoaren eta ondorengo kristautasunaren arteko harremana aipagai:

Urtemugetako eta heriotzeko erritoak Sumeria eta Egiptotik honaino etorri ziren eta euren jainko nagusien izenaz gogoratzen dira kristautasunaz gero ere, kristautasuna ez bai zan etorri lege zaharra ezabatzeraz, haren eskakizunak argitu eta muinez osatzeraz baino eta, beraz, izen zaharrak edukin berriaz ornitzera.

Israelgo Biblia-kontakizunetan ere Sumeria, Egipto eta beste inguruko kultura isladatzen da. Mitoen eskakizuna herri guztien eskakizuna denez gero, kristautasuna, kristauen arabera, eskakizun guztioi behin betiko erantzuna ematera dator.

Erritoei fedea baino irupen handiagoa dute berez, fedea eguneroko bakoitzaren aukera eta Jainkoagazko ituna bai-da eta ohiturak, osteraz, hiletako erritoei bezala, maiz gizarteko betebeharrak, batak bihotzetik bezala garoaz, besteak besotik.

Festa-giro berri honen garrantziak eragin handia izan du tradizioan eta herri erlijioetasunean, etnografian eta folklorea ere soka luze bezain koloretsu eta era

askotarikoa utziz. Horiek horrela, gure artxiboei begiratu bat eman eta honekin guztiarekin zerikusia duen hainbat ekai ageri zaigula ohartzean, berari buruzko lan hau prestatzea otu zaigu.

Gure asmoa, hortaz, Nafarroako ur-ixurien hegoaldeko euskararen gutxi gorabeherako eremuan, XX. mendeko laurogeiko hamarkadaren inguruan aurkitu genuen egoeraren berri ematea da, jakingarria izan daitekeelakoan. Asmo nagusia, hortaz, ez da gaiaren inguruko barrunbean sartu eta, ondorioz, balizko iritzi berriren bat ematea, asko baitira horretaz mintzo diren izen handiko adituak, esku artean ditugun lagin jakingarriak inoren eskura ezartzea baizik.

Izan ere, datu-bilaketan ibili ginen denboran gure helburu nagusia berrie-maileak mintzaraztea izan zen, hauetarik asko, gehienak, euskara desagertzeko ataka lazgarrian zen hainbat herritako lagun erresidualak izaki, eta ez horrenbeste ikerketa etnografiko sakon bat egitea. Horrexegatik, zalantzarik ez, biltzea guztiz mereziko zuketzen gai batzuk maiz galdetu gabe edo doi-doi galdetuta geratu ginen, gaiotan behar bezala ez sakontzearen ondorio: hildakoak belar benedikatuez ureztatuak izateko edota berek erabilitako lastairak hil ostean erretzen ote zireneko ohiturez galdetzea, esate baterako, nahiz honi buruzko zerbait bildu dugun, ospakizun hauen testuingurutik at izanik ere.

Gure herrian honetaz guztiaz aritu diren ospe handiko ikerleak asko ditugu: Resurreccion Maria Azkue, Jose Gonzalo Zulaika (Aita Donostia), Jose Migel Barandiaran, Jose Maria Satrustegi, Jose Maria Jimeno Jurio, Juan Garmendia Larrañaga... beste batzuen artean. Horiek eman iritzi edo idatziriko pasarte interesgarri batzuen berri bai, tarteka, emango dugu, balizko interesduna gaiaren aurrean kokatzen laguntzeko.

Azkueren **Euskalerrriaren Yakintza** eta **Cancionero Popular Vasco** ize-neko lanetan, hain nola Aita Donostiaren **Obras Completas** delakoan, maiz dakuskigu mundu honi atxikiriko kontaera eta aipamenak, musikatuak gainera, biak baitziren musikari eta folklorista, hori baino gehiago izateaz gainera.

Barandiaranek, aspaldi argitaratu **Cuestionario para un estudio etnográfico del Pueblo Vasco** izenburuko lanean, **¿Qué creencias y prácticas se relacionan con el día de San Juan?** buru duen galdera-sorta plazaratu zuen, alde batetik (49 or.), eta, **¿Cómo se llama vulgarmente la Nochebuena?** buru duena, bestetik (46 or.). Galdera hauek berebiziko jokoak ematen dute esku artean dugun gaia aztertzeko.

Satrustegik, aspaldi ere, bi solstizioen kari zertzen diren kontu eta ospakizunez idatzi zuen: **Canto ritual del agua en Año Nuevo** (1971) izenburuko lana, aurrenik, eta **Pregón festivo de San Juan** delakoa ondoren, urte berean.

Bi lanotako aurrenekoan Satrustegik egin sarreratik zerbait ekarri dugu hona, Urteberriko uraren inguruko errituaz zera idatzi baitzuen apaiz arruazuarak:

Nuestro pueblo ha sido muy dado, de siempre, a las cuestiones populares. Es un hecho fácilmente constatable. (...). Quedan todavía vestigios de todo ello en algunos pueblos pequeños, si bien tiende a desaparecer y es previsible su extinción definitiva en un futuro no muy lejano.

En cuanto a los textos conservados, conviene distinguir entre cantares comunes a todos los pueblos y letrillas de carácter local. (...). Las costumbres locales, sin embargo, son las que presentan mayor interés bien por su valor lingüístico o por conservar rasgos que delatan el sentido primitivo de la fiesta. Puede ser el caso del cantar de nochevieja, que conservan algunos pueblos de la Barranca, en Navarra. La versión actual recoge bastantes versos comunes a todos los pueblos de la geografía vasca; pero encierra también peculiaridades dignas de estudio.

Cabe destacar la primera estrofa, conceptual y arcaica, portadora del mensaje del agua nueva (ur berria), que los mozos recogen a la hora exacta de las doce campanadas, para distribuirla por las casas como primicia del año que entra. Cantan primero a la puerta de las autoridades, que salen a saludarles con el primer presente. No cabe duda de que esta costumbre reviste carácter ritual de profundo significado etnológico.

Actualmente se encuentra confinada en los estrechos límites de unos pocos pueblos de la Barranca-Burunda. Quedan huellas en los cercanos valles de Imoz y de Larraun. Han llegado hasta nosotros cantares alusivos al agua de nochevieja, incluso de Baztán. Probablemente se trata de una práctica muy generalizada antes, en una extensa zona de Navarra.

Jimeno Jurioren iritzia ere, 1988an argitaratu zuen **Calendario Festivo de Invierno** lanean, oso kontuan hartzekoa da. Hona ikerlari artaxoarraren eskutiko iruzkin batzuk:

Gabon supila. El tronco de Dios (leños denominados baztarreko, subilero, sukil...). El fuego ha sido objeto de cultos a lo largo y ancho de tierras y tiempos. Los de los solsticios eran sagrados, milagrosos, benefactores, salvadores. Callejero, extrovertido, curador de sarnas el del verano de San

Juan. Familiar, introvertido, recóndito, protector también, el del invierno. En torno a él se congregaba la familia; cada uno ponía una astilla: “Pa la Virgen”, “pa calentar los pañales del Niño”; para los familiares ausentes, los pobres que andan de puerta en puerta, la benditas almas del Purgatorio. El tronco simbolizaba y realizaba la unión del clan familiar, vivos y difuntos. Su calor llegaba, vivificador, a presentes y lejanos.

Satrustegi ere, honixe buruz, luz e mintzo da. Hona, laburki bederen, bertatik ateratako lerro batzuk:

Permanece vivo en el recuerdo de nuestra infancia y es añoranza de las propias vivencias. Se relaciona con las tradiciones populares y conserva el encanto cálido de la intimidad familiar. Es la llama sagrada del tronco de Navidad.

Eta, aurrerago:

En la versión de Mezquiriz (Erro, N.) eran dos troncos grandes los que se colocaban a ambos lados del fogón. Coincide el dato con la comunicación de Gorriti (Larraun, N.), donde se les llamaba con toda propiedad “laterales de Nochebuena”. **Onantzaro gabeko baztarrekoak.**

Garmendia etnografo tolosarrari, bestalde, **Ritos de solsticio de Verano (I-II), festividad de San Juan Bautista** izenburuko lana zor zaio (1987-8). Horren lehen zatiko Sarreran honela mintzo zaigu:

Las distintas celebraciones que tienen o han tenido lugar en razón del solsticio de verano, identificado en nuestro medio con la festividad de San Juan Bautista, son una rica expresión de ritos de contenido naturalista, que subyacen bajo costumbres piadosas de manifestación religiosa. Y aquí apuntaremos que las cosas no pueden ser de otro modo, puesto que la Iglesia es pueblo.

El solsticio de verano da pábulo a la superstición, a la magia blanca y al mito, que llevan implícito el reconocimiento de un algo que escapa al hombre, de un algo que es superior a él. Todo ello llevado a cabo, en este caso, en torno al fuego, al agua y a la presencia del reino vegetal, en sus distintas formas.

Bi zatitan aurkezturiko lanean Garmendiak herri askotako informazioa dakar, gehiena Nafarroako eta Gipuzkoako hainbat herritan bildua, Araba-Bizkaiko lagin batzuk badira ere.



UDAKO ERRITUEN INGURUKO GAIAK LEHEN BEGIRATU BATEAN

Udako aroari hasiera ematen dioten San Juan jaiaren inguruko ospakizun erlijioso zein magikoak direla eta, oso ohikoa da –edo, lekuen arabera, izan da duela denbora gutxi arte– herriko apaizak, meza eman ondoan, era askotako belar, landare, lore eta abarrak bedeinkatzea, lehengo urtekoak, artean etxean gordeak, bezperan egin suan erreta izaten baitira harrez gero.

Belar horietako batzuk ganbaran gordetzen badira ere, beste batzuekin lore ederrez apainduriko sortak egiten dira. Hauek etxeko atari-leihoetan edo etxeari lotu ferraren batetik zintzilikatzen dira, etxea bera tximistetarik, oinazturetarik babesteko. Ohitura hauek, dena dela, gure egunotan arras galtzen ari dira.

San Juan bezperan suak egin eta, haren gainetik jauzi egitean, lelo batzuk oihukatu ohi dira. Inoiz, egutegian San Pedro eguna hain hurbil egonik agian, horrekiko aipuak ere entzun daitezke lelook botatzean.

Aipatu dugun Garmendiaren laneko lehen zatian zera dakusagu:

En el fuego tendremos asimismo en cuenta su condición purificadora, que se manifiesta de manera paladina en las diferentes fórmulas exclamatorias que preceden al salto sobre las llamas del anochecer del 23 de junio: **San Juan bezpera, sarna fuera!** (¡Víspera de San Juan, fuera la sarna!), es el grito que se escucha en más de un pueblo.

Horrelakoa da, bai, lelo horren hedaduraren handia, hori erakusteko prestatu dugun koadroan –berehala aurkeztuko dugunean– ikusi ahal izango denez, beste-lako leloak bildu baditugu ere.

Ezkabia edo sarnaren aurkako joera horixe ere, bestalde, agerian jartzen du San Juan egunean edo bezperan bereziki –baina ez egun hauetan bakarrik– inguruko iturri, erreka eta ibaietara joan eta gorputza edo honen zati batzuk garbitzeko igurtzialdiak egin izateak. Gainera, intsusak edo sanjuanlilia bildu, egosi eta beren lurrinak hartu ohi dira.

Alorretan, berriz, suaren errautsa botatzen da lurra ernatzeko eta bere bazterretan hurritzez, sahatsez edo beste zerbaitez¹ eginiko gurutzeak tinkatzen dira tximistetarik-eta defendatzeko. Zenbait herritan, halaber, suaren errautsak ukuiluan zabaltzen dira aziendak ere eritasun eta gaitzetarik babesteko. Hau, baina, San Anton –edo San Antonio– Abad eguneko kontuekin nahasita daku-sagu inoiz, Ihabar, Beorburu, Ezkabarteko Anotz eta Agorreta bezalako herrietan, adibidez.

Maiatza deituriko arbola menditik ekarri eta herriko plazan finkatu ohi da. Agian sonarik handiena duen Burundako herrietarik landa (Olatzagutia, Iturmendi eta Bakaiku), haren berri Basaburuko Ihaben eta Arrarats herrietan eman ziguten, baita Anueko Olaguen ere². Ohiko denboratik kanpo, urriko Amabirjina Errosariokoaren festan ere jarri egin da Urritzola Arakilgoan³.

Zertzelada honetaz mintzo zaigu Satrustegi, bi solstizioen inguruko errituen ospakizunez ari denean (Solst. de Invierno), ura eta sua gisako elementuak, beti, presente egoten direla adieraztean:

El espectáculo folklórico de la colocación del mayo en algunos pueblos de Navarra tiene lugar todavía alrededor de la fiesta de San Juan, en el solsticio de verano, y es un testimonio vivo de las antiguas celebraciones.

Los países nórdicos recurrían a las especias arbóreas de hoja perenne para el culto de invierno y queda pujante la tradición del árbol de Navidad que, por mimetismo, se va implantando también en el País Vasco.

- 1 Lizarra eta elorria dira –elorri zuria– Garmendiak gehienetan aipatzen dituenak.
- 2 2018 urtean jakin dugunez, azken hiru herri horietan ez da jartzen, baina Basaburuko Berueten, lgoan eta Gartzarunen, hala nola Ultzamako Iraizotzen, gutxienez, bai.
- 3 Beste izen batekin bada ere, ‘San Juan arbola’ izenez, alegia, gu jaiotako Donostian beti ezagutu dugu alde zaharreko Plaza Berrian. San Bizente Parrokiako apaizen batek benedikatu, dantzariak San Juan zortzikoa dantzatu, arbolari sua eman eta, hau itzali ostean, haur koxkorrek, labana ttiki baten bidez, beretiko azal puskak ebaki eta etxera eramatea izan da eta da ohitura.

Neska gazte batzuen etxe-atariak edo balkoiak abarreztatuta egiten dira. Hau Arruazu, Irañeta eta Ihabarko ekaietan aurkitu dugu soilik baina, ustegabeko ohar batean dakusagunez, baita Arriasgoitiko Zuntzarrenen ere, horrek ekar dezakeenarekin, litekeena baita ohitura hau iraganaldi ez hain urrunean oso zabaldurik egon izana. Garmendiaren lanak irakurrita, badakigu beste zenbait lekutan ere ohitura hau indarrean egon dena, Arabako Kanpezun, kasu.

Ospakizun profanoak direla eta, aipatu direnak, askotan, askari, kantu, musika, dantza, joko eta zenbait udalek eskaintzen duten ardo eta otamen edo mokadu-dastaketa batez osatu izan ohi da eta da.

Udako ohitura hauetatik abiatu, eta ideia orokor bat emateko xedez be-tiere, koadrotxo bat prestatu dugu San Juan bezperako sua egin eta haren gainetik jauzi egitean oihukatzen diren edo duela gutxi arte oihukatu diren leloen berri emateko. Lelook badituzte beren esparru jakinak, aise antzeman daitekeenez.

Urdiain	<i>San Juan Bautistaren doa (hiru aldiz)</i>
Dorrao	<i>Purrin San Juan, San Klemente salero, subiek ez pikätzeko, Unenuko tripotak lertzeko</i>
Unanu	<i>Urrin San Juan, subiek ez piketzeko</i>
Arruazu	<i>Urrin San Juan, ipurdien sarna</i>
Irañeta	<i>Viva San Juan, viva San Pedro, sarna fuera Gora San Juan, viva San Juan, zorriek eta partzak fuera</i>
Murgindueta	<i>Girigiri martxa... sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora</i>
Ihabar	<i>Girigiri martxa, sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora</i>
Satrustegi	<i>Kirikili martxo, sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora, atso guzik ipurdiz gora Kilikilli martxo, sarna fuera, atso guzik ipurdiz gora, viva San Juan, viva San Pedro, vivan los angelitos que están el cielo San Juan bezpera, sarna fuera Kirikiri martxo, sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora, makumea guzik ipurdiek gora</i>
Etxeberrri	<i>Biba San Juan bezpera, sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora</i>
Zuhatzu	<i>Giligili martxo sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora, biba San Juan bezpera</i>
Urritzola, Arakil	<i>San Juan bezpera, sarna fuera</i>
Atondo	<i>Kikili martxo, sarna fuera, ogi ta ardo, sarna fuera</i>
Latasa, Imotz	<i>San Juan bezpera, sarna fuera, ogie ta ardo nafar etxera</i>
Urritza	<i>Sarna fuera, San Juan bezpera; atso zaharra guzik ganbera bera</i>
Madotz	<i>San Juan bezpera, sarna fuera</i>

Uitzi	<i>Viva San Juan Bautista, sarna fuera</i>
Ihoben	<i>Sarna fuera, San Juan bezpera, viva San Juan</i>
Arrarats	<i>San Juan bezpera, biba San Juan bezpera, sarna fuera, San Juan bezpera</i>
Gartzarun	<i>Sarna fuera, onak itxera, gaixtoak kanpora</i>
Iharregi	<i>Urrin gela, sarna fuera, onak barnera, gaixtoak kanpora, biba San Juan bezpera</i>
Eguarats	<i>Sarna fuera</i>
Arostegi	<i>Sarna fuera, viva San Juan</i>
Beratsain	<i>Sarna fuera, San Juan bezpera, sarna fuera</i>
Aginaga	<i>San Juan bizpera, sarna fuera</i>
Otsakar	<i>San Juan bezpera, miñek eta sarnak fuera Sarna fuera! San Juan bezpera, garie Nafarrora ta artoa Franziera</i>
Larraiots	<i>Sarna fuera, San Juan bezpera</i>
Beltzuntze	<i>Sarna fuera</i>
Untzu	<i>Girigili martxo, egun da San Juan bezpera, sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora</i>
Anotz, Ezkabarte	<i>Sarna fuera, kaiku te ganbela pera, Nafarroko gari guzie kur'itxera</i>
Sorauren	<i>Sarna fuera, fuera sarna, viva San Juan, viva San Pedro, vivan todos los santos que están en el cielo, el que está dentro que salga fuera</i>
Gaskue	<i>Urrin belar, sarna fuera, onak barnera, gaixtoak kanpora, San Juan bezpera</i>
Gelbentzu	<i>San Juan bezpera, sarna fuera</i>
Latasa, Odieta	<i>Sarna fuera, sarna fuera</i>
Erripa	<i>San Juan bezpera, sarna fuera, to zarra ta karrak berrie</i>
Gendulain, Odieta	<i>Sarna fuera</i>
Almandoz	<i>San Juan Bautixa, onak barnera, gaixtoak kanpora, sarna fuera</i>
Olague	<i>Sarna fuera</i>
Etulain	<i>Sarna fuera, Viva San Juan</i>
Burutain	<i>Sarna fuera</i>
Etsain	<i>Sarna fuera, sorgiñek kanpora</i>
Leranotz	<i>Sarna fuera, garie Española, artoa Frantziara ta sorginek ganbela pera</i>
Urtasun	<i>Sarna fuera, San Juan bezpera</i>
Eugi	<i>Xarna fuera, sarna fuera</i>

Agorreta	<i>Sarna kanpora, yende ona itxera</i>
Osteritz	<i>Sarna fuera, arto Franziera, garie Española</i>
Ezkierotz	<i>Sarna fuera</i>
Setoain	<i>Sarna fuera, fuera sarna</i>
Errea	<i>Sarna fuera, artoa Española, Española, kukusoak eta zorriek Franziera, ta garie Española</i>
Ilurdotz	<i>Viva San Juan, sarna fuera</i>
Galdurotz	<i>Sarna fuera, fuera sarna, viva San Juan</i>
Zalba	<i>Sarna fuera, fuera sarna, alto Francia, viva España Sarna fuera, fuera sarna, maíz a Francia, trigo a España</i>
Zuntzarren	<i>Sarna fuera, retruchera!</i>
Larraingoa	<i>Sarna fuera, sarna fuera</i>
Urniza	<i>Xarna fuera, ezkabie kanpora, garie ta artoa Española</i>
Aintztoa	<i>Sarna fuera, kukusoak lepera</i>
Esnotz	<i>Sarna fuera, sarna Gipuzkoara, garie ta artoak Española</i>
Zilbeti	<i>San Juan kanpora ta San Juan barnera</i>
Lintzoain	<i>Sarna fuera ezkabia kanpora eta granoa gure etxera</i>
Bizkarreta- Gerendia	<i>Sarna fuera, ezkabia kanpora, artoa Franziera, garia Española</i>
Mezkiritz	<i>Sarna fuera</i>
Auritz	<i>Sarna Gipuzkoara ta garia Nabarrara</i>
Orreaga	<i>Sarna fuera</i>
Luzaide	<i>Sarna fuera, unak barnera gaixtoak kanpora</i>
Lusarreta	<i>Sarna fuera, sarna kanpora</i>
Espotz	<i>Sarna fuera, tutiela pera</i>
Nagore	<i>Fuera sarna, sarna fuera</i>
Orotz-Betelu	<i>Sarna fuera, viva San Juan, viva San Pedro, vivan todos los santos que están en el cielo</i>
Azparren	<i>Sarna fuera, sarna fuera</i>
Artozki	<i>Sarna fuera, viva San Juan</i>

Behin Artzibarko herriez gero, eta betiere gure saio honen esparrua zein den kontuan izanik, era honetako leloak ez zaizkigu azaltzen. Kontuan hartu behar da Esteribar, Arriasgoiti eta Artzibar izeneko ibarretan, non herri txiki asko dauden edo izan diren, egundoko despopulazioa suertatu dela eta, bertako herriak hustu ahala, haurren falta nabaria gertatu izanak ohitura hauen guztien galera berarekin eraman duela.

Horren antzeko zerbait aipatu zuten, halaber, duela mende erdi bat pasa, Luis Pedro Peña Santiago eta Juan San Martin ikertzaileek⁴, Artzibartik hegoalderantz kokatu Urraulgoiti ibarra goitik behera aztertu ostean, jarraikoa idatzi zutenean:

SAN JUAN BAUTISTA – Hoguera. En Adoain, Arielz, Ezcániz, Larequi (abandonado) y Ozcoidi ya no encienden hoguera la noche víspera de San Juan. Una de las razones más sencillas que explican esta desaparición es que en estas aldeas ya casi no hay niños o no queda ninguno, y hoy en día, al menos en Urraul Alto, son los pequeños los que tienen la ilusión de encenderla.

En Aristu y Zabalza también preparaban las hogueras y al saltar se solía gritar: “Sarna dentro, sarna fuera”. En Irurozqui, uno de los contados pueblos donde aún celebran la noche de San Juan, oímos cómo algunos padres, al animar a sus hijos a que saltaran, les decían que al hacerlo gritaran: “Sarna dentro, sarna fuera”.

En Elcóaz todavía conservan la costumbre de saltar por encima del fuego de San Juan. Hace algunos años, al brincar, decían: “Cura cura sarna, mal de la rana, si no te curas hoy te curarás mañana” y también: “¡Sarna fuera!”. En Jacoisti y Ayechu la fórmula era distinta: “Sarna fuera, si está dentro que salga fuera”.

En Guindano, aldea abandonada no hace muchos años, acostumbraban a gritar al saltar por encima de las llamas: “¡Viva San Juan! ¡Viva San Pedro! ¡Viva las puertas que nos abran el cielo!”.

Koadroko lehen leloa –Urdiaingoa– kenduta, hurrengoa (**purrrin** eta **urrin**) Er-goienako bi herritan eta Arruazun ageri da, eta baita, hemendik urrutitxo, Ilarre-

4 *Estudio etnográfico de Urraul Alto (Navarra).*

gin (Ultzama) eta Gaskuen (Odieta) ere, hauetako lehenengoan **urrin gela**, eta, bigarreanean, **urrin belar** moduan⁵.

San Juan eta **sarna**, ezkabia, leku askotan, era batera edo bestera harremanetan dauden hitzak, Sakanako Arruazun ageri zaizkigu aurrenekoz, baina, Arakil aldera mugitu ahala, **girigiri** edo **giligili** gisako hitzak, **San Juan**-enarekin batera bada ere, aurre egiten die eta zenbait herritan nagusigoa kendu: Murgindueta, Ihabar, Satrustegi, Etxeberri (hemen bi leloak), Zuhatzu eta Itzako Atondon dugu ezaugarri hau, zeina, ustekabean, Txulapaingo Untzun ere ageri zaigun, Ezkabarteko muga ondo-ondoan; Itza eta Antsoaingo zendeetan barrena orain ez aspaldi zabaldurik agian?⁶

Esteribarko Inbuluzketan lelorik ez, baina esaldi bat eman ziguten: **San Juán egúne, argítu ordúko ilúne** (surik egiten ez zutenez, Etsaina joaten ziren). Erroibarko Gerendiainen, berriz, leloaz gainera, esaldia bildu genuen: **Por San Juan comerás leche y por San Pedro requesón.**

Deigarria, agian, Pirinioko hiru ibarretan –Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkaribar– San Juan bezperako suaren inguruko ohitura hau desagerturik izana. Egin ere, Aezkoako Hiriberrin haren aipamena egin ziguten arren –jada lelorik gabekoa–, Zaraitzu-Erronkaribarko hainbat herritan ez genuen berorren berri hurbila bildu, bestelakoa baita inguru horietako ohitura: San Juan egunean, eguzkia argitu gabe, ibaira joan, begiak eta aurpegia garbitu, eta intsusa-loreak bildu ohi dira flemoiak-eta sendatzeko.

Hori, baina, ez bide da izan alderdi honetako ohitura berezia soilik, beste nonbait ere aurkitu baitugu horren gisako zerbait. Halaber, ur medizinaletako iturrietara joatea, ihintzaz bustiriko alorretan oinutsik ibiltzea edota ibaira oinak bustitzera joatea moduko ohiturak ezagunak izan dira eta, dirudienez, oraindik orain ere badira, geroago ekarriko ditugun testuetan ikusi ahal izango denez.

5 Ilarregiko Olaia Erbitiren ustez, 'urrin gela' hori etxeetan erre ohi zen menda-sorta batek eragin kearen urrinari edo usainari zor zitzaion, etxeko gelak lurrinduta geratzen zirenez. Alabaina, Gaskuen aditu dugun 'urrin belar' leloa, bestea baino egokiagoa iruditzen zaigu, Ilarregiko adibidean balizko 'belar' hitzaren desitxuratzeara egon bailiteke.

6 Hipotesi honen alde jokatzan du, gure ustez, Garmendiak, 1987an, Olloibarko Beasoainen bilduriko zera honek: *Guirguilli macho, sarna fuera. Ogi ta ardo Nafarrosa. San Juan bezpera, sarna fuera!* (Ritos II).



Ur toloteko iturria Ziordia eta Olatzagutia herrien arteko mugan, buruko harriak erakutsi bezala. ENAUT ALBARRACIN



NEGUKO ERRITUEN INGURUKO GAIK LEHEN BEGIRATU BATEAN

Neguko aroari hasiera ematen dion Eguberriko jaiaren ospakizunak, berriz, Epifaniaraino edo, nahiago bada, Erregeen egunera arte luzatzen dena, oso bestelakoa da. Garai honetan, egunak laburrak eta hotzak izatean, bizimodu gordeagoa egiten da udan baino eta, oro har, ospakizunak ere ez dira hain era zabalekoak. Sua eta ura, haatik, biak dira presente aro honetan ere: sua, ohiki, baina ez beti, Eguberri egunean bakarrik, tximinian, Jainkoaren, Amabirjinaren, etxekoen eta hainbaten mesedetan biztu ohi da, **bazterreko, sukil** edo beste izenen baten bidez ezagutzen den enbor bereziaz.

Eguberrietan mutikoek diru-eskeak edota behartsuentzako egurrak biltzeaz gainera, Ziordian eta Ihabarren aditu bezala, intxaurrak, gaztainak, goxokiak eta, Izaban adibidez, **katamorak** biltzen zituzten lagunartean banatzeko.

Gabon-kantak ere iritsi zaizkigu, nahiz hauek, lan honek ukitzen dituen ibarrak direla eta, ezarpen desorekatua erakutsi, zeren, mendebaldeko Burundan eta Larraunen zerbait, gutxi, bildu badugu ere, ekialdean neurri aski ederrean aurkitu baititugu: Auriztik eta Artzibartik hasi eta Erronkariko ibarreraino.

Zenbait lekutan oilar-meza egin izanaren berri ere badugu. Artzibarren, gainera, artzainek, larruak bizkarrean, axuriak hartu eta Jesus haurrari eskaintza egiten zioten. Aezkoa eta Zaraitzu ibarretako zenbait herritan mutilak makila eskuan eta danborrak joz ibiltzen ziren etxerik etxe berri ona ematen eta puskak biltzen.

Urteberriz uraren erritua leku askotan mantendu egin da, Sakana aldean agian gehienik eta Burundako Urdiainen bereziki. Ura iturrietatik bildu, edan, agintariei eskaini, etxera eramane eta hainbat koplaren oinarrian egotera iritsi da eta

iraunarazi. “Ur goiena, ur barrena” hasiera duten hauen hainbat arrasto Arakilgo herrixka txikietan ere bildu dugu eta, Sakanan ez-ezik, Imozko, Larraungo eta Basaburuko herri batzuetan jaso dugu lekukotasunen bat.

Alabaina, bestelako eitea duenik ere bada, ‘Txiribiri txajoneko’ hasiera duen kantineka itxurako bat, aski hedaturik orobat, honako herrietan aditu duguna: Larunbe, Arostegi, Anotz (Ezkabarte), Anotzibar, Latasa, Olague, Etulain, Burutain eta Etsain. Anue ibarretik ekialderantz honen arrastorik ez dugu hauteman.


Errege-egunean etxekoek, mahai baten inguruan jarririk, kartak hartu eta botatzeko ohitura zuten, ‘errege’ nor aterako zen ikusteko. Gero balkoira atera eta emaitza jakinarazten zuten oihu biziz, ezkilak gogotik astinduz edota eskopeta-tiroa botaz, herriko beste etxeren baterako bidea harturik.

Errege-egunean, halaber, haurren kuestazioa egitea txit zabalduko ohitura izan da gure egunotara arte eta, oraindik orain, zenbait herritan horri eutsi egiten dioten ustea dugu.

Neguko denbora honetan ez dira faltatzen afari eta askari bikainak, kantu, musika, dantza, joko eta bestelako dibertsioak, zenbait udalek inoiz eskaintzen duten ardo eta otamen dastaketaz goxatua.

Inori harrigarria egingo zaio, agian, azken mende erdian-edo nabarmenki zabaldu den Olentzeroren inguruko ezein aipamenik lan honetan ez agertzea, baina, lanak besarkatzen duen esparruan aspaldi bildu genituen bizipen eta oroitzenak ikazkin mitikoaren agerpena bertan agertu aurreko denboretan jaso ziren.





LAGINEN AURKEZPENA

Laginak aurkezterakoan, udako denborakoak eta negukoak bereizirik ekartzea **L**iruditu zaigu egokien, balizko irakurlea, une oro, denbora bateko egoeretatik bestekoetara jauzika ibili behar izatetik libratzeko. Hortaz, aurrenik, uda denborakoak agerraraziko ditugu eta, ondoren, negukoak.

Testurik gehienak Ahotsak.eus QR kodeetan jaso ditugu, uda-denborako gaiak aurrena eta negukoak ondoren, baina batzuk, hainbat arrazoiengatik –leku-kotasun urriak, grabazio kaxkarrak edota eskuz harturiko oharrak izateagatik– hortik kanpo geratu dira. Horiek, haatik, idatzita bai, eman ditugu, baina «**✕**»-ikonoarekin markatu ditugu, gainerakoetarik ongi bereizteko.

Testuetaurik batzuk aurretiaz ere argitaratuak izan dira, gehienak, 1977az geroztik, **Fontes Linguae Vasconum** izeneko aldizkarian, eta, beste batzuk, 2014an, **Ziorditik Uztarrozeraino...** izenburu luzeko lanean. Horiek guztiak, zernahi gisaz, berrikusi egin ditugu orain eta baita, inoizka, beretan ukitu batzuk egin ere, zertxobait hobetzeko asmoz. Aitortu beharrean gara, haatik, grabazio batzuk aski edo oso kaxkarrak izatea gure axolagabekeria galantari zor zaiola, geure grabagai-luari ez baikenion behar bezalako arreta eskaini, eskaini egin beharko genionean. Kontuak atzera bueltarik ez badu ere, lasaiago geratu gara aitorpena eginik.

Egin ditugun transkripzioei dagokienez, aditu uste duguna idazten saiatu gara, batzuetan, askotan, zalantzak izan ditugun arren. Hori horrela, oharrak maiz egin behar izan ditugu, egokiak ez diruditen hitzak edo esaldiak, batez ere desitxuraturik iritsi zaizkigun kanta batzuen kasuetan, argitzen saiatzeko.

Hitz edo esaldietariko batzuk ere, batzuetan, dela era ilunean aditzen direla, dela beren ulerkerak zailak egiten zaizkigula, parentesi arteko etenpuntuen edo

galdera-ikurren bidez ezkutatu ditugu eta, horrez gainera, zenbait solasalditan hainbat berriemailek erdizka baizik ahoskatu ez zituzten silaba solte, erdi hitz eta abarren idazkera baztertu dugu, ezertan laguntzen ez duten trabak alboratzeko.

Erdizka baizik aditu uste ez dugun hizkiren bat, bestalde, parentesi artean idatzi dugu, inoiz ere, aditu ez dugun bat edo beste, hitza hobeki azaltzekotan idatzi dugun arren. Gauza bera egin dugu ustezko bustidura erdiak-edo aditu uste izatean, eta baita beste zenbait kasutan ere.

Inoiz edo behin, gainera, parentesi karratuak [] erabili ditugu hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatu dugunean, horietan jasotzen dena argitzeko asmoz.

Gainera, bokal batzuen itxierak zein irekierak direla eta, aditu uste izan dugun **a** eta **e** artekoa **ä** idatzi dugu; **e** eta **i** artekoa **ë**; **o** eta **u** artekoa, **ö**. Inoiz, **i** eta **u** arteko bat aditu uste izan dugunean, **ü** idatzi dugu.

Beste kontu bat da galdera-ikurrena. Irakurlea ohartuko denez, zeinu hori ez dugu soilik galderetan erabili, berriemaileek zenbait esaldiri galdera-itxurako intonazioa eman dioten hainbat alditan ere bai baizik.

Gure berriemaileekin izaniko harremanetan erabili genuen hizketa modua, bestalde, haien mintzaitetara hurbiltzen saiatzeko erabilia, maiz aldatu dugu orain, testuak aurkeztean, batzuetan gure galderetan zerturiko akatsak zuzentzeko eta besteetan haien mintzaitaririk behar bezala bereizteko.


Testuok, orokorki, mendebaldetik ekialderanzko norabidean sailkatuta daude, eginkizun horretan maiz bide bihurritan barrena, eskuin eta ezker, aurre-ra eta atzera, egin behar izan badugu ere.

Ur-ixurrietatik iparraldera kokatu Almandozko Mendiola auzoko apurrak eta Luzaideko testuak batu zaizkie zerrenda osatzen duten herriei, salbuespenez, bata zein bestea aipatu mugatik oso hurbil egotean.

Lana, liburu formatoaz gainera, sarean ere zintzilikatuko da eta testuak Ahotsak.eus-en bidez aditu ahal izango dira, erakunde honen onespenerekin.

Lanari, azkenik, ikusgarritasun pixka bat emateko, argazki batzuk gehitu dizkiogu. Ekarpenean honetan laguntzaile izan ditugun ondoko adiskide eta erakundeek ere gure eskerrik beroenak damazkiegu gogotik, bidezkoa denez.

Eskerrik asko, orobat, Eunat eta Xabier alaba-semeei, aurrenekoari audioen kontuko saltsan laguntza bikaina eskaintzeagatik eta bigarrenari lana irakurri eta hainbat ohar egiteagatik.




Aintzioako etxe honen atari-leihoan eragin babeslea aitortu ohi zaion eguzkilore idor
parea ageri da. KOLDO ARTOLA



ETSAIN

ARBIZU



LUSARRETA

OTSAGABIA

DORRAO

ORONTZE

ETXARRI-ARANATZ

BEUNTZA

OTSAGABIA

URDIAIN

BURUTAIN



ARTOZKI



MURGINDUETA

BAKAIKU

BIZKARRETA-GERENDIAIN



SORAUREN

ESPARTZA



ALTSASU

SAIGOTS

LATASA



ITURMENDI

OLATZAGUTIA

LARUNBE




AURITZ

MUSKITZ

EGUARATS

UDAKO SOLSTIZIOAREN OSPAKIZUNAK





HERRIA	TESTUEN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	IRAUPENA
OLATZAGUTIA	1. Sanjuanak <i>Olaztin</i> (2002)	8'29"
ALTSASU	2. San Juan, Altsasuko ermitetarik bat (2001)	4'27"
URDIAIN	3. <i>Urdingo</i> San Juanen kantaita (1985) 4. Urdiango sanjuanetako ohiturak (2001)	3'24" 2'04"
ITURMENDI	5. Iturmendin, <i>maiatza</i> deitu arbola "maiatzeko sanmigeletan" ipini (2001) 6. Iturmendiko <i>maiatza</i> arbolaren inguruan, berriro (2001)	6'10" 5'33"
BAKAIKU	7. <i>Maiatza</i> , Bakaikun, San Juan bezperan (2010)	8'57"
DORRAO	8. Dorraoko sanjuanetako ospakizunak (2000)	6'17"
UNANU	9. Unanuko suan saltoka sugeen hozkak ekiditeko (2000)	2'29"
ARRUAZU	10. <i>Arbazuko</i> sanjuanetan erremadurak ageri (1984)	6'52"
IRAÑETA	11. <i>Irintan</i> ere erremadurak, Arruazun eta Ihabarren bezala (1988)	1'48"
MURGIUETA	12. <i>Girigiri</i> hasierako leloa <i>Murginten</i> (1986)	1'23"
IHABAR	13. Ihabarren, San Juan eguneko errituen eragina San Antonekoan (1989)	5'14"
SATRUSTEGI	14. Satrustegiko San Juan suarekikoa, Josefa Ongairen arabera (1985) 15. Satrustegiko San Juan suarekikoa, Jesusa Ongaik kontatua (1985)	0'54" 0'55"
ZUHATZU	16. Zuhatzuko sanjuanetan: sua egin eta <i>Giligili martxo</i> (1986)	1'45"
URRITZOLA	17. Sanjuanetako ohiturak Urritzolan (1985) 18. Urritzolako Akatillu iturriaz zerbait (1985)	3'15" 2'07"
MADOTZ	19. Madozko San Juan bezperako leloa, jada ahantzia (1986)	1'16"
UITZI	20. Uitziko San Juan bezperako lelo bitxia (1990)	0'55"
IHABEN	21. Ihaben: sanjuanetako <i>maiatza</i> Basaburua ibarrean ere (1988)	7'20"
ARRARATS	22. Sanjuanetan <i>maiatza</i> Arraratsen ere (1985)	2'32"
ILARREGI	23. Ilarregiko sanjuanetako ospakizunak, Ultzaman (1989)	5'18"
BEUNTZA	24. Beuntzako sanjuanetakoak, Atetz aldean (1987)	4'20"
EGUARATS	25. Eguaratsen <i>sarna fuera</i> leloa baizik ez (1990)	1'00"
AROSTEGI	26. Arostegin ere ohiko kontuak eta inguruko iturrien ospea (1990)	2'55"
BERATSAIN	27. Beratsaingo sanjuanetan sahasak bedeinkatu gurutzeak egiteko (1985)	1'40"
AGINAGA	28. Gulibarko Aginagan ere sahasak ebaki eta gurutzeak egin (1986)	1'34"
BEORBURU	29. Beorburun ere San Juan eta San Antonen arteko nahasmena ageri (1985)	1'12"
OTSAKAR	30. Otsakarren ere antzeko ohiturak, begietako mina aipagai (1988)	3'20"
ANOTZ	31. Ezkabarteko sanjuanak Anotzen (1984) 32. Anoztarrak Aingiriturrira pikorrak sendatzeko (1985)	4'08" 3'03"
GASKUE	33. Odietako Gaskuen, sanjuanetan, sua egin eta <i>Urrin belar</i> leloa (1987)	1'18"
GELBENTZU	34. Gelbentzun belarrak erre eta hautsak abereen artean bota (1987)	2'16"
ERRIPA	35. Erripan esaldi berezia eta iturriko joera (1987) 36. Aingiriturriren aipamena eta Burdindogiko ermitaren berri (1987)	1'58" 4'54"
ZIAURRITZ	37. Ziaurritz: sanjuanetako oroimen urrunak eta Aingiriturrirako joera (1986)	4'27"
ANOTZIBAR	38. Anotzibarko herria, sanjuanetan, Aingiriturrira (1986)	2'26"



Ahotsak. eus atarian entzungai ➡

HERRIA	TESTUEN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	IRAUPENA
OLAGUE	39. Olagueko sanjuanetan gauza mordo, <i>maiatza</i> tarteko (1986)	3'09"
ETULAIN	40. Sanjuanetakoak Etulainen eta Anotzibarko iturriaren aipamena (1986)	8'48"
BURUTAIN	41. Burutaingo sanjuanetan sua egin, iratzeak erre... (1987)	1'54"
INBULUZKETA	42. Inbuluzketan sanjuanetako ohiturak galdurik omen (1981)	2'28"
LERANOTZ	43. Leranozko sanjuanetan sua egin eta <i>Sarna fuera</i> leloa (1986)	1'24"
USETXI	44. Zubiriko zubiaz zerbait (1989)	1'05"
SAIGOTS	45. Saigotsen, Zubiriko zubiaz berri gutxi (1989)	0'49"
URTASUN	46. Urtasunen ohiko kontuak eta Zubiriko iturriaz zerbait (1988)	2'08"
EUGI	47. Eugiko sanjuanetan sua, jauzi egin eta leloa bota (1988)	2'35"
AGORRETA	48. Agorreta: San Juan bezperako sua eta Zubiriko iturriaz (1986)	4'45"
	49. Agorretan San Juan, San Anton, San Blas... ohituren nahasmena (1986)	4'26"
EZKIROTZ	50. Ezkirotzen ere sua eta alorretan gurutzeak paratu (1986)	2'36"
ILURDOTZ	51. Sanjuanetako ohiturak Ilurdutzen (1982)	7'57"
	52. Zubiriko uren ospea Ilurdotzeraino hedatua (1986)	1'30"
URNIZA	53. Urnizan ere giro berbera eta alorretan gurutzeak (1985)	3'18"
AINZIOA	54. Aintzian sua, leloa eta bazkari ederra (1986)	3'11"
ESNOTZ	55. Esnotzen, sanjuanetan, sua eta leloa (1988)	2'00"
ZILBETI	56. Zilbetin ere, sanjuanetan, sua eta leloa (1987)	0'43"
LINTZOAIN	57. Lintzoainen ohiko sua eta Gurbizarko iturriaren aipamena (1986)	2'07"
MEZKIRITZ	58. Mezkirizko sua, San Juan edo San Pedro bezperan (1986)	2'06"
AURITZ	59. Auritzen sua eta lelo gaiztotua (1985)	1'00"
	60. Aurizko San Juan bezperako <i>el Tribuli</i> ospetsua (1985)	3'12"
	61. Aurizko San Juan bezperako <i>Tribuli</i> -az berriro (1989)	3'54"
	62. Aurizko <i>el Tribuli</i> -ren beste bertsioa (1989)	4'23"
ORREAGA	63. Orreagan sanjuanetako leloa doi-doi oroitua (1989)	0'56"
LUZAIDE	64. Luzaideko sanjuanetako belarren bertuteak (1988)	5'23"
	65. Luzaide inguruko kontu ezberdinak eta <i>San Juanen bizarra</i> (1991)	6'59"
ESPOZT	66. Espotzen, sanjuanetan, sua, leloa eta loreak ate-leihoetan (1986)	1'36"
ARIA	67. Arian, sanjuanetan, hurriz-elorriak etxe atarietan (1979)	0'30"
	68. Ariatarrek San Juan bezperan surik ez (1985)	0'59"
GARAIOA	69. Garaioako sanjuanetako ohiturak, lehen bertsioan (1985)	6'28"
	70. Garaioako sanjuanetako ohiturak, bigarren bertsioan (1986)	4'57"
ESPARTZA	71. Espartzan surik ez baina iturrira begiak bustitzera bai (1991)	1'15"
OTSAGABIA	72. <i>Otsagin</i> iturriko urak hartu eta intsusak egosi (1981)	3'52"
UZTARROZE	73. Uztarrozen, San Juan eta San Roke egunetan ttun-ttuna (1981)	3'53"
	74. Uztarrozeko sanjuanetako ohiturak (1989)	2'59"
	75. Uztarrozen, inoizko San Juan ermitara joaten omen zenekoa (1985)	2'12"
IZABA	76. Izabako sanjuanetan ibaira joateko ohitura (1975)	3'28"

OLATZAGUTIA ~BURUNDA~

Josefa Ezker Mikelez, 1908

gurasoak ere, biak *olaztiarrak*

1. Sanjuanak *Olaztin* (2002)

– **San Juan egunean, zer?**

El día San Juan, y voy a decir en castellano, e? el día San Juan pues, solíamos ir a por halechos, al monte, pa poner en las puertas, y llevábamos los paquetes que en las puertas poníamos, y... igual unos ramos de... de rosas, también, en las puertas. Bueno, pues el día de San Juan solíamos ir a... al agua de batueco...

– **Ay, pero eso me tenía que contar en euskera; hori euskaraz kontatu behar duzu...**

Bai, baya! baya aztu, aztu iten zaida!

– **Esan duzu lehenik biltzen zenutela belarra?**

Ba, faten gindan e... lengo, bakizu, ‘ur bedikatuba’ esaten genduben euskeraz, faten gindan e... iturri bat zagön, eta... goizian goiz, e? faten gindan, eta gero, etortzen gindanian e... andi? orra, ermita baten? Andra Mariya? meza bat, eta... gero, mezati ata? eta an zon, eta an egoten zan e... ¿cómo diré?

– **Txistulariak-edo?**

E... el txistu solían tocar.

– **Txistulariak, e?**

Ori da! txistulariyak; ¿ves? no me sale. Eta an e, Andra Mariyan e... ataiyan? dantzán, klaro! Eta... bueno, olatxe, eta gero errezat-, esan dezut, plazán ematen zein e... ola, patzen zein e... un pellejo grande de vino en un, en uno... en esos cacharros que parecen como tijeras? que ponen...

– **A! zahagi bat ardo paratzen zuten?**

Bai, ta orduan e... repartitu iten zein dee... zera, esan dezuten dee orí; eta... gero plazán, ola, gizonak, zortzikoa aik, dantza eiten zein, zortzikõa, Bueno, el zortziko se bailaba mucho antes aquí.

– **Eta, oroitzen zara nolako musika den?**

Ttirla... txistubaki!



– **Eta, musika nolakoa da?**

Musikkia? ba! eniz akordatzen ere⁷.

– **(San Juan martxaren hasiera abestu genion). Hori ez? horrelako zerbait?**

Olako, bai, olaxe zan. Gero, gizonak ee... ba! zortzikua eta gero... eje! no me sale ¿ves? como... cuando se bailaba el zorziko, pues... vamos todos en fila hombres y mujeres y nos agarramos con aquellos pañuelos... de cuadros que solía haber antes ¿no sabes? pues el uno agarrar de una punta, y otro, y así todos en fila, íbamos, y los hombres iban cantando y así y ¡bueno! yo no me acuerdo, cantar no me acuerdo.

– **Baina, lehen esan duzu aurrenik bildu belarrak eta loreak lurre-ra-eta botatzen zirela?**

Bedarrak? a! lurrian bota? bai... iria esaten genduben, a los halechos ‘iria’, esaten genduben; eta botatzen zan e... ataiyan! eta gero inxusia badakizu zer dan ere?

– **¿Sabuco?**

Sabuco, también solíamos echar sabuco...

– **Hori ere bai, e? hori San Juan egunean?**

San Juan egunian, botatzen zan.

– **Etxe atarietan?**

Bai, sobre poco menos e danak e... botatzen genduben eo, ataiyan; kostunbriak, badakizu, e?

– **Eta, gero, arbolaren inguruko festa arratsaldean egiten zen?**

Arrasaldian! plazan e, orduan e arba... patu iten tzein.

– **Eta Santa Maria, ermita hori, non dago?**

Santa Maria? Santa Maria ez, Andra Mariya! Bai, ermittea zan baia bota zain⁸.

– **Ai, zer pena!**

¡Claro que pena!... ya hace poco tiempo, todavía. Bueno, algún año ya hace pero, la ermita de Belén... Ta olatxe!

7 K hizkiari aitortu ohi ez zaion bustidura aditzen uste dugu *musikkia* idatzi dugun horretan. Iturmendin ere, gutxienez, horrelako ahoskera aditu uste izan dugu, *musikkëa* eta *fabrikka* hitzetan, bi lagun ezberdini gainera.

8 Belengo Andra Mariren baseliza 1971ean eraitsi zuten.

Gero, San Juan egunian ere? orduan ee... ya a una... plazara, plaza le-... jarritzen gindan? eta orduan ematen zein ardua, arraxaldean? arratsal(d)e... txun-txunakí? eta... ematen zein ardua eta gaztaiyá, plazako... jende guztiyari. Eta... gero San Juana da kantaita? baia ez, oi eztaikit.

– **A! San Juanen kantaita ez dakizu, e?**

Asieria, asieria badakit baya bestela ez.

– **Tira, ba, eman hasiera...**

“Irurak iru dira, irurak e mendi(r)a”, pero, no sé más seguir.

– **Eta, paratzen zen arbola?**

Bai, San Juan egunian e, plaza erdiyan, patzen zein e... abaitz⁹ aundi bat...

Gero, patzen zein e, igual e... oilaxko bat o, puntan, e? eta, orduan e... gizonak ee... ba! ya, nork e... iristen zen e... öilaxk'ura; baya, ez... ezin zan? zengeiti, untatzen ze-, eztaikit zerekin untatzen tzein ta...

– **‘Sebo’ edo, zerbaitekin...**

Irixtratu iten ziran eta bota¹⁰, lurrera; ta olatxe.

– **Eta, apezak eta... apizak, benedikatzen zuen arbola?**

Bai... bai.

– **Nola esaten duzue hemen? apeza, apiza edo apaiza... nola?**

Apiza... apiz bat; ta gero, mezara faten ginden, domekatan? ba... meza nagosiyaa, badakizu. Ta... bueno, orduban ee... jendia, asko faten tzen¹¹ elizara; orai ezta faten eunbeste, je!

– **Ez, ez-ez-ez; orain gutxi, e?**

Orai gutxi faten da; eta olaxe ba.

– **Eta, etxe-atarietan, egiten zen sua?**

Bai, bai, bai... suba iten tzan; joe! patzen genduen or... maiz-lastua, bada-kizu maiz-lastöa zer dan?

– **Maiz-lastoa?**

Maizean... lastua, eta... bedarrakin-da monton aundi bat patzen, patzen genduben? eta su(b)a eman? da gero, saltoka an! gaztiäk...

– **Haren gainetik?**

Arren gaineti, suban gaineti... ta olaxe.

9 Altsasun *araitz* bildurik gaude, ‘haritz’, alegia.

10 Bota = ‘erori’, kasu honetan. Adiera hau zabaldurik dago Nafarroako ibar askotan barrena.

11 *Fatatzen* aditzen uste dugu hor.



– **Eta, salto edo jauzi egitean, zerbait esaten zen?**

E! eniz akordatzen ere!...

– **‘San Juan bezpera, sarna fuera’ edo... horrelako zerbait?**

E! e... eniz akordatzen!

– **Zenbait herritan esaten omen zuten ‘San Juan bezpera...’ eta horrelako zerbait, ezta?**

Bai, alako... zerbeit bai.

– **Baina, ez zara gogoratzen...**

Ez! eniz akordatzen; aztu iten da!

ALTSASU ~BURUNDA~

Juan Mazkieran Iriarte, 1918

gurasoak ere, biak altsasuarrak

2. San Juan, Altsasuko ermitetarik bat (2001)

– **Eta, hemen ez dute jartzen arbola? Iturmendin-eta bezala? arbola bat maiatzean...**

An, beño emen ez.

– **Pinu (edo pago) haundi bat. Hori non egiten da? Iturmendin edo Bakaikun edo...?**

Iturmendin... Santa Marina egunian.

– **Hor badute ermita bat mendian, ezta?**

Bat eo, gurutzia!

– **Baiza edo...**

Urbasako... eskin ortan.

(Emaztea): Santa Marina.

– **Eta, hemen, Altsasun, zenbat ermita duzue? bat Otadiako Kristoa... Cristo, Santo Cristo de Otadia; San Pedro...**

(Emaztea): San Juan...

San Juan e bai, ta... Amabirjiña Erkudengöa.

– **Erromeria egiten da?**

Bai.



Erremadura Altsasuko etxe baten balkoian. GUAIXE



– **Horretara bakarrik?**

San Pedro!... San Pedro egunean? jo!

– **Urdindarrekin batera, ezta? edo zuek bakarrik?**

A, danak!... etortzen dia; Donostitik eta, Pamplonatik eta... jaya izanez-keo? jo! ura beteko da. Aara juntatzen da ura, jende, ta... ardo ematen dei, gosaldu an iten dou, ardua? balijatik? e... ¡claro! no puedo decir, las tazas de plata...

– **Eta, jateko zerbait...**

Ardo!

– **Bai, hori edateko, eta jateko?**

Jateko ere etxeti ian, klaro!

– **Eta, egun guztiko?**

A! guk bertan, bazkaldu in duu.

– **Hori urtero?**

Urtero, bai; emeti jana, iana beti? ta an e... berotu? ta trunkilo an.

17. Sanjuanetako ohiturak Urritzolan (1985)

– **Hor, sarna dela-eta, San Juan bezperan garai batean ez zen egiten sua?**

Bai.

– **Orain ere egiten da?**

Bai-bai, itten da.

– **Eta, non egiten da, edo...?**

A! oin? denbo-, bueno, urte atetik besteako; ttä emen, emen eztao geyo, sanko nizuke non, zein... zein planta, aletxo! da paxu et... in? ta, bedikke-tu? San Juan eunëan. Ta itxean sartu, ta orduko? aurreko urteko paxue, bediketue ere, itxean izeinko zu, irukiko zu, guardatzen beitzen; ta, San Juan bezpean? illuntzean así? ta atari guztietan, paxu arrei, eletxo aiei? su man, ta famili guztie...

– **‘Helecho’ zen?**

Helecho.

– **Beste izen bat esan duzu; nolako izena eman duzu lehen?**

Aletxo.

– **Eta, hori nola da euskaraz? iratze edo? garoa?**

Garoa izeinko da.

– **Edo ‘iraztorra’ edo holako zerbait?**

Iaz-, iaztorra, koño! Gipuzkoan-ta... meta asko izeten dee or.

– **Iraztorra orduan?**

Iaztorra, iaztorra, bai.



– **Eta, orduan, etxeko atarian...**

Etxeko atarian? bai, pixkuat aparte, eta, denok saltatzen giñun, gañeti, ta beingo atez, pixkuat atzeatzen nitzen ni? ta, banaien, martxa guztiyen? saltatzea? ta, en sentido contrario, beste neskatx bet torri tzen, ta, taaas!!... kopetaz, kopetakin jo ta, su baztarrea bota giñen biek? ta beste desaeatatu giñen an; ez giñen erre, beño... musu eerra man giñun!... Il tzen, maku-me ore're.

– **Non egiten zen sua?**

Atarien.

– **Atari guztietan? edo...**

Bai, bai, bai, bakotxak bere paxue, atari guztietan erretzen tzen.

– **Iraztor-paxua?...**

Iraztorra, iaztorra; San Juan aurrean? itten tzen, ta San Juan goizëan? mezan? bediketu. Ta, guardatu urrengo urteako... eta urrengo urtean? atarien erre; ta, bezpean? berriz ee karri... uztea. ¡Hala, refuerzo, refuerzo!...

– **Eta, suaren gainean jauzi egitean, zerbait esaten zen?**

‘San Juan bezpera, sarna fuera’.

– **Eta zer beste? hori bakarrik?**

Bazeen beste ítz batzuk e, beño, ez naiz akordatzen: ‘Sarna... San Juan bezpera sarna fuera’. Gue aitek-eta jaten zuten beste itze azko, ez naiz oritzen!... olaxe. Kostunbre... politte zen, beño...

18. Urritzolako Akatillu iturriaz zerbait (1985)²⁴

– **Hor, goiti horretan, diozu?**

Or, goitti, ni juan naitzen lekutik? an putzu ttiki bet itten tzen, ta lengo zarrak? askok? begitako miñe izeten zuten, begik gorri-gorri jarrita. Ta, orko urekin garbitzen tzeen. Ta mendi tarte ortan ee? bada putzu txiki bet, ladrilluekin ta ongi artuik orain, ta ‘agua de batuco’ saten diote, ta jende asko etortzen da, been kantiplorakin o zeaki? ta eamatea autsiri. Ta geo, Betelun ee bada...

– **Baina, lehen esan duzun horrek badu izenik?**

24 Testuan ez da esaten sanjuanetan Akatillura joateko ohitura zenetz, baina larruko gaitzak kentzeko era honetako iturrietara hurbiltzeko joera handia zen egun horietan.

Onek? Akatillu.

– **Nola?**

Akatillu, Akatillu ur, Akatilluko ure, begien miñetako? Akatilluko ure.

– **Eta, txanpona barrura botatzen dute edo? bakar-bakarrik bertatik hartu eta aplikatu, ezta?**

Aplikatu; garbittu areki.

– **Besterik ez, e?**

Daus ez, besteik gabe. Bazen, nee... ama, aman adiñekoa o ola zen, maku-me at, solt-, alargune tze; ez, alargune... ‘viuda’ da.

– **‘Soltera’ esan nahi duzu, ez?**

Ori, ‘soltera’.

– **Ezkongabe edo donado edo...**

Bai, bai, donada.

– **‘Donada’ esaten da?**

Donada esaten da, bai; ta arrek bai, begi gorrik itzeten zittun ta, astero-astero juan ta, kantinplora bat o... ure artu? ta kartzen tzun, ortik gora, kilometro at-ta itzeinko da karreteratik gora, beño, oañik seitzen du; askotan akordatzen, zeati, jendiak nola... usetzen tzun. Oain? iñok kasuik eztiio itten, ure... or daie. Ta, ori? agua de batueco? sarnandako itzen bear du; sarna bada ba, miñe ateatzen duna. Ori espezial sarnandako, bai.

ATONDO ~ITZA~

Plácido Ibero Mutiloa, 1905

aita: Atondo / ama: Aritz

Sanjuanetan: sua egin / Kikili martxo (1991) ✕

– **Y, al saltar por encima de la hoguera ¿qué se decía?**

A! ‘Kikili martxo, sarna fuera, orte (sic) t’ardo sar-, sarna zu (sic)’. ‘Kikili martxo, sarna fuera, ogi t’ardo, sarna fuera’.



LATASA ~IMOTZ~

Jose Erbiti Beunza, 1913

aita: Oskotz / ama: Aginaga (Gulibar)

San Juan bezpera, sarna fuera (1986) ◀×

‘Ogia ta ardo... San Juan bezpea’. Gero beste itxean? ta, saltatu ta, adio!... denak, makume ta gizon ta... orduen danak.

– **Baina, zer esaten zen? ‘San Juan bezpera’... zer gehiago?**

Ya, atzendu ein tzaide? ta ya... ‘Sarna fuera... ogie t’ardo, zera, San Juan bezpera!’.

– **Hori zen, e?**

Bai-bai, denbora aitan, atari guzietan sue!

URRITZA ~IMOTZ~

Miguel Mari Urriza Urriza, 1926

ama: Urritza / aita: Beramendi (Basaburua)

San Juan bezperako lelo dibertsifikatua (1986) ◀×

En Oskoz (esaten omen zuten): ‘Sarna fuera, San Juan bezpera; atso zaa-rra guzik ganbera bera’.

– **Bai, e?**

Bai, ala esaten tzuten ordun.²⁵



25 2018. urtean, Imozko Etxalekun, *Sarna fuera, atso guzik Larralde bera* eman digute.

MADOTZ ~LARRAUN~

Fermin Zarranz Apeztegia, 1931

ama: Madotz / aita: Egiarreta (Arakil)

19. Madozko San Juan bezperako leloa, jada ahantzia (1986)

– **Hemen San Juan bezperan sua egiten zen?**

Bai, bai! ore betë, ori betë.

– **Eta, haren gainetik zer egiten zen? jauzi egin alde batetik bestera edo?**

Ez, ez; nola'rre ez; suen da saltokan ebiltzen tzen alde batetë bestea, su...

– **Ba, hori, saltoka...**

Saltoka... ta suak, aek paratzen txiin, eztakit nik, bueltakan ta.

– **Zer egiten zen, su bat edo bat baino gehiago?**

Ez-ez, bat eitten tzen jenealen... bai. Zera, nola gazte, gaztek ebiltzen giñen pakarrëk... psss, je! nola... su... orr eitten giñön.

– **Non egiten zen?**

Baratz zarr oitan.

– **Eta zeozer, zerbait esaten zen salto egitean?**

Ba! orduän e, ezta, ezta ez, emen, ezta olakorëk esaten.

– **'San Juan bezpera' edo...**

San Juan bezpera, bai-bai-bai, San Juan...

– **'Sarna fuera', edo...**

Oi dena aitxuk! je!

– **Aditu duzu?**

Aittue.

– **Eta zer, hori bakarrik edo beste zerbait ere?**

Ez, orain bakizu, in dute te asko galdu in da orain.

– **Ez zaizkizu asko gogoratzan...**

Ez, geo. Geo utzë zen ba... eta, oan ezta eitten aspaldi, kia!



UITZI ~LARRAUN~

Trinidad Rekalde Errazkin, 1911

ama: Uitziz / aita: Aizkorbe (Arakil)

20. Uitziko San Juan bezperako lelo bitxia (1990)

Biar San Juan egune
Gaur San Juan bezpera
Jesukristoren lengusue da
San Juan Ebanjeliste²⁶

– **Aizu, eta San Juan bezperan suak egiten ziren?**

Bai, etxean e bai, oñik etxe onek, bai-bai-bai.


– **Eta, haren gainetik, salto egiten al da?**

Bai-bai-bai, ta atzena? beste etxetan dee? beti, zea, zeñek, bueno: ‘Viva San Juan Bautista! sarna fuera!’. Noizpaten iñon ere, aitze ezö?

– **Zer esan duzu esaten dela?**

‘Viva San Juan Bautista! sarna fuera!’. Goi zutela? ¡un rito!...

Eta, San Juan, ure ta berriz ta, ya gu e? San Juan bezpean bi, piketu? ta San Juan, aurtent? ta urrengo urtean aizeratzen dee, suargi argia sue, sanjuanliliz. Ue, barruen zuen... tipiko afira ue da, eukela bai.



26 Garmendiak, ohitura hauetaz ari delarik, Betelun honela kantatzen zutela dio: *laz zan San Juan, aurtent San Juan Bautiste, Jesukristoren lengusue da San Juan ebanjeliste*. A lo que a los jóvenes les faltaba tiempo para contestar corrigiéndose a voz en grito: ¡Ez, Bautiste! (Ritos I). Garmendiak berak dioenez, Azpirotzen eta Nafarroako mugatik gertuko Idiazabalgo Ursuaranen ere antzeko leloak erabiltzen zituzten (Ritos II).

IHABEN ~BASABURUA~

Angel Aldaz Laseca, 1914

aita: Ihaben / ama: Eltzaburu (Ultzama)

21. Ihaben: sanjuanetako *maidatza* Basaburua ibarrean ere (1988)

– **San Juan bezperan sua egiten zen?**

A, bai! San Juan bezpera izaten tzen, erri atzutan, oso polita izaten tzen. Atsaldetan? pues asten tzien illunabarrean? suek, lemixko, atari atean, ta area biltzen tzien erriko... ume guziik? ta an akatzen tzelaik? urrengo itxea; an beste at, ta... olaxe erri guzi(i).

Bueno, batzuk bazien aparte eitten zutena, batzuk atari atzutan edo besteak bestetan beño, jenealien aprobetxatzen giñun, erri guzie arrapatzeko gise; asten giñen punte atetik? ta, salto egi(n)? ta sube itzaltzen tzelaiken? beste atea.

Ta geo, gazteak? gazteak kartzen zuten, arbol bat aundie! ‘mayatza’ esaten giñuna, mayatza, bee kaskoan? bee... ostoaki, bee ostoakin, ta kentzen tzitzaion, kentzen tzekiyon, azala, Ta, geo bittarteo? batzuk, ue karri bittarteo? beste batzuk? eitten giñun zuloa, ue sartzeko, ta oiek tortzen zelaiken? pues, denan ertio, si kaso? pues sartzen giñun...

– **Trapo bat edo banderaren bat edo...**

Bai, bai, zerbatt e, itxure, aizeak ez tiratzeko! ta, ordun, jasotzen giñue? ue, arbola ube zulo artaa? ta geo ongi estutu? ta, an uztartzen giñun, zea. Bai beño ya, gaves, ya gau e? ta an eoten tzen... bueno! beste urteaño kasi tta; ezpazen bittarteo botatzen? ta errespetatzen tzen, ola, arbola artaa. Antxe.

– **Eta, apezak bedeikatzen zuen?**

Ez, ez, etzen! no es como ahora, etzen, etzun tzea, ¡hombre! apezari, gusatzen zitzaizkioten gauz oik ya, San Juana... ‘mayatza’ esaten giñun.

– **Arbola horri, e?**

Bai.

– **Eta, azala kentzen zitzaion?**

Azala... pagoai? azala kendu, txuri-xurie dena. Bueno, kaskoa alleatu biño lenau? uzten tzitzaion pixkoat? ta kaskoan, pues, berdea, e? kasten



kinun²⁷... be ostoaki, be ostoaki. Ta uzten tzitzaion arbolai, pues tras-,
bee ostoaki puske at goie. Oso politte izaten tzen ere.

– **Eta, azal harekin zer egiten zen?**

Atzala deus ez!

– **Azala kendu eta harekin zer egiten zen?**

Ez-ez-ez-ez, erre o... ue, klaro! politte baitzen txuri-txurie, arbola, as-
koz e politto.

– **Eta, azal horrekin ez zen egiten gurutzerik edo?**

Ez, oik, gurutze oiek tzien, beste oroitura batzuek tzien. Oik? zea... Erra-
munëan, e? Erramu-eunean? bedeketzen tzien, ‘sagatsa’ esaten giñon,
arbol... zea, arbol-klase bat.

– **Bai, ‘sauce’?**

Ixaten tzen, ola, loditasune o geigo, ta itten giñuzen, pues mozten giñu-
zen a, zea ortra, luzera ontaa, ta geo, eamaten tzien, bedekitze batzuk
itten zittuten gurutzeak, seittun, ta beste atzuk eamaten tzien bereiketzea
makil oiek? eta geo, bedeketzen tzelaiken iten tzeen gurutzeak, beño,
geienak eramaten zittizuten, sagats oieki, gurutzeak.

Espunte moxtu? o... zorroxu begi-punte bat? eta goittin, axalan
ertin, itten tzen gurutzean señalear, gurutzean señalear itten tzeen, zea
alako pakete... sail bet? alorretan ta sartzeko? ta, oiki, sagats oieki? pues
esan dutena, itten tzeen gurutze oiek? eta eamaten tzeen bediketzea.

Ta geo, bedeketzen tzelaiken? pues, kartzen zittuten itxea? ta bazen
eune? sartzzen zittutenak leiotan? ta... zean, alorretan? ta, itten tzen geo
San Juan bezperan? San Juan bezperan bedekitzen tzeen iretzeak, ired-
torra o iretzeak, bedeketzen tzien. Itten zittuten paket aundi betzuk...
oianetik kartzen tzeen, sokakin lotuta, ixtor berdea? ta, ixtor berde oik,
San Juan... eunean? mezaa eramaten tzien.

Ta, bezpera? bezperan, erretzen tzien, San Juan bezperan, erretzen
tzien, lengo zarrak; lengo zarrak erretzen tzien San Juan bezperan, ta
biramonean? oiek, iretzor berriek? eta ‘lintsutse’ esaten giñion flore...
batzukin? eitten tzeen paketeak, ta bakotzak bee paketea? antxe, eliz ata-
rie, eamaten giñuzen? eliz atarie? ta apezak bediketzen zittun? ta, berriz
guardatzen tzeen urte guzien.

27 ‘Ekartzen ginuen’ bide da hori.



Maiatza Basaburuan ere goratzen dute; argazkian Igoa. KOLDO ARTOLA



San Juan bezperan, ikiarri ilusioa izaten tzen, sube ori... itteko, San Juan bezperako sube oi pizteko, lintsutse oiek. Ta geo gurutze oiek? jartzen tziren leiotan, tximistek ez, ez sartzeko, ta, asko berriz? alorretan, alor iskin batëan? ur bedikatuki, bedeikatu lurre? ta, aik sartu, ortotsak e... tximistek ez etortzeko ta. Oai, oitura, oitura oso zarra! oi ya! baña, fiñek, oitura fiñek, ordun, denboa artan gauzek eitten tzien, joñe! zea bezala, e? bai.

– **Eta, lehen *maiatza* deitzen zenuten arbola hura, zer zen? bagoa?**

Pagoa, pagoa... pagoa bai, pago izan tzen, Yabe(n), eskubidia ute, bateti bestea ba, ber(e)ixteko ekartzen giñon? ta abar, pues au beste urteako ta olaxe.

– **Eta, *maiatza* deitzen zenuten, e?**

Mayatza deitzen dioteke! zergatik zen ue? beño, mayatza tzun... deitzen giñun.

– **Eta, gero, sua egiten zelarik, muttikoek ez zuten jauzirik egiten suaren gainean?**

A, bai! Jesus! asko erori ta, miñe artu ere bai an, biño... ez! kasu eitten tzen, aurre ttikiendako? ez giñun uzten aur ttikiri, pues... sue aundie zeolaiken? saltatzea ta, ta geo, aundik saltatzen giñen? o bueno, ya, aunditu giñelaiken? bai porke, oi juaten da... lenbixiko, gu ttikik izandu giñelaiken? pues, gauz batzuk eta gu aundittu giñelaik? pues, aikei iakusten, ta lenbixko saltatzen dee? ta oain, bajatu delaiiken? saltatzen tzien aur ttikik, ta emakumeak eta... denak plazan! dena, aurreki ta, suen ingurur.

– **Eta, zerbait esaten zen salto egitean?**

A! bai: ‘Sarna fuera, San Juan bezpera, biba San Juan!’, ijijiji!... oso poleki.

– **Hori besterik ez?**

Ori ez, nik ori ikasi nun, eztakit, enaiz akordatzen, ara. ‘Sarna fuera, San Juan bezpera, biba San Juan!... biba San Juan bezpera’ ta, se(g)! Geo, saltatzen asi? batek alde atetik bestea bestetik? topoz in ta an, lurrea yoan ta, pasten tzen, beño etzen... kontu oi izaten tzen, kontu oik. Oitura politte, izaten tzien orduen, bai.

ARRARATS ~BASABURUA~

Andres Etxeberria Arano, 1910

aita: Arrarats / ama: Igoa

22. Sanjuanetan *maiatza* Arraratsen ere (1985)

– **San Juan bezperan zerbai egiten zen?**

An e San Juan bezpera itten tzen lenao.

– **Zer egiten zen?**

Pues paratzen tzuten *maiatza*, erri... ola, guzii. A! oi, oai demas eztelarik iten oi? bein akabatu? ta... pues, otordu, t'ola, gaztekin do? ta... juerga, puxkat.

– **Baina, hori noiz?**

Nuiz? je! oai urte asko eztula, bai-bai.

– **San Juan bezperan esan dut, e?**

Bai.

– **Eta, zuk esan duzu maiatzean, ezta? San Juan bezpera ez da maiatzean...**²⁸

Maiatza esaten diote, zea orrei... San Juan, San Juana da, ni(k) uste... bai-bai, bai, San Juan.

– **San Juan da junio...**

Bai-bai, biño junio, biño... *maiatza* paatzen da, *maiatza* esaten diote orrei, arbol orre-, arbola... mendin, zeaki, zean ekarri? ta paateute erriin. Ta, sartö zuloan pa, txutik, punten zerbait e mazo o paatu? ba, yendii fin be o... goien, punten ta, errii(n) paatu. Ta tze? ze? geo juerga! ostatun bilduta, otordukin o...

– **Eta, bedeinkatzen zen?**

Bai zea! o!... ez zen beik-... ez.

– **Eta, ez zen kostunbrea iratzea edo, eztakit, beste zerbait...**

A! zeak erretzeko? larrak erretzeko?

– **Bai.**

Bai; emen izan tzuten aurten!

28 Galdera hori egitean gaia ez genuen behar bezala ezagutzen.



– **Zer egiten zen? zer belar-klase edo...**

A! e... onoko... belarrak egitti te, lizarr-ostoak eo... zea, intsi-, intsisu, intsuse, ta, oek, bilduzteatik? eta paxoan paatzen tzeen, ta, beste urte at karriatzen zuten äik, ta lengo zarrak erre, lengo zarraki, su... su ein? ta, an gai(n)etik pasatzen naiz ni saltoan!... bai.

– **Eta, horrela pasatzean, zerbait esaten zen?**

‘Biba San Juan bezpera, biba San Juan...’

– **Besterik ez? ‘sarna fuera’ edo’?**

‘Sarna fuera’, eso sí, si.

– **Eta zer beste?**

‘San Juan bezpera, biba San Juan bezpera, sarna fuera, sarna fuera, San Juan bezpera’.

GARTZARUN ~BASABURUA~

Miguel Mugiro Urkiola, 1921

ama: Gartzarun / aita: Aldatz (Larraun)

Sanjuanetako lelo xumea (1986) ✕

– **Sanjuanetan sua egiten zen?**

(Berriemailearen amaginarreba Francisca, Anozibarkoa): Saltun fuera!

– **‘Sarna fuera’ edo? Gartzaronen, nola esaten zenuten?**

‘Sarna fuera, onak etxera, gaixtoak kanpora’. Ori erraten tzen.



ILARREGI ~ULTZAMA~

Barbara (1908) eta Urbana Arbilla Arbilla (1911)

aita: Ilarregi / ama: Iraizotz

23. Ilarregiko sanjuanetako ospakizunak, Ultzaman (1989)

– **San Juan bezperan hemen bazen ohitura, uhaldera joan edo, sua egin edo...?**

U: San Juan bezperan, su in? su in, su in te saltatu.

B: Suek in te, su artan saltatu.

U: Urrin gela.

– **Urrinela?**

U: ‘Urrin gela, sarna fuera, ona(k) parnera, gaixtoak kanpora, biba San Juan bezpera’.

– **Nola hasten da? urrin?**

U: ‘Urrin gela’.

– **Hori zer da?**

U: Pues saltatzeko gañetsu arta.

B: Saltatzeko, or gazteak batean.

– **Baina, zer erran nahi du ‘urrrin gelak’?**

U: Saltatzeko.

– **Eta, zer gehiago?**

U: ‘Urrin gela, sarna fuera, San Juan (...), sarna fuera, ona parnera, gaixtoak kanpora, biba San Juan bezpera’.

B: Eta saltatus geostik su artan? etzen, etzen-da etortzen sarna edo minik, korputzian.

U: Umiak saltatzen dia aunitz, gazte-denboran.

B: Oi-oi! ze juerga ortan! oi-oi ama!

U: Bai, itten da zama...

B: Pues itxe guzietan erretzen die eeki, itten da sug oi.

U: Urte bates itxan idukitte, itxan.

B: San Juan egunian bediketu? te, urbillen urteko iretze-zamak... guar-datuik, su itteko.

U: Arrosak eta.



– **Eta, paratzen zen zerbait atarietan?**

B: Baite! elorrie.

U: Elorri tzurie; atarieko leiotan? gurutzia.

B: Tta, itten dire gurutzia ere.

U: Orai, ore, ori're galdu de²⁹.

B: Saatsak, makillek bediketu? te, San Juan egunëan edo, ori're, elizera eman? ta, an bediketu, ta makil eieki gurutzia in? ta, alorretan...

U: Finke guzietan? gurutze bana, sartu.

B: Zu-, zut oietan? zut oietan? laboriak konserbatzeko, arri-erauntsie-taik? paatzen tzien, zut onetan gurutzia, atakan, alorrea... xartiar tzen lekuen? ta, paatzen tzien gurutziek, alor guzietan.

– **Eta, egun horretan ez zen besterik egiten? suaren gainetik salto egin besterik ez?**

U: Ta, gero? erretzen tzen arrauts ore, su egin ttä, belar aieki itten arauts ore? artu, katxarro batea? ta garie erein bear zelaik, botatzen tzaio ba, auts bete... ernatzeko, aziari eraitteko, arrainatzen zute ore, belarran auts ore. Eee! pilleka ibiltzen giñen ola bera, beño orai?... eztute nai aittu're oaingo gizonak ere gainea biño, igual eztu beste gauze bat e; beste gauze bat... naturalago benizpin.

B: Fede, fede geiagoki... itten tzen lana.

– **Bai, hura beste mundu bat zen, e?**

U: Bai, ya lo creo, bai.

– **Orain denarekin puskatu egin da, e?**

U: Dena, dena, ori dena.

– **Hainbeste kotxe eta hainbeste telebisio eta...**

B: Jo! telebixioa ta gotxe? ezta munduen bazienik ere, dena...

U: Gero etortzen da? naiko susto por ahí.

B: Pausu guziek? yoan bear zela gurutzia, dena oñez, edo, edo... abre-tan.

U: Olaxe.

– **Eta, sua egiteko egur-pilaren bat edo, egiten zen?**

U: Ez-ez, belarr arreaki... belarraiki; zama itten tzen majoa, San Juan egunian emate igual, bedeiketzero, elizera, zam ore. Ta gero, kasi, urte guzien, areki.

– **Zamo?**

U: Zama.

– **Zer zama? karga bat? ('manajo bat' edo, erabili beharko genukeen)**

U: Bai, belarra: iretzia ta... floreak, aunditz.

B: Te, txolusten floriak³⁰, eltxaurren, eltxaurren adarrak... eta ola.

– **Eta, horiekin egiten zen pila, e?**

B: Bai, zama bat eerra.

– **Eta, hura erretzen zen...**

U: Bai.

– **Eta, haren gaintetik egiten zuen jende gazteak brinko...**

U: Bai, bai, bai.

– **Eta, kasik inguruko herri guztietan egiten zuten, ezta?**

U: Bai-bai.

B: Denetan, denetan, itxe guzietako... itxe guzietako atarietan, denetan.

Batetik bertzea, batek itten bazuen lenao? arara; bertzek itten bazuen gero? arara, batetik bertzero.

BEUNTZA ~ATETZ~

Andres Baraibar Igoa, 1911

gurasoak ere, biak beuntzarrak

24. Beuntzako sanjuanetakoak, Atetz aldean (1987)

– **San Juan bezperan, zer egiten zuen apezak?**

Bedeiketu itten zuen.

– **Zer bedeinkatzen?**

30 'Loreak finkatzen' ('txertatu' ere izan omen daiteke), Urbana zenaren alaba Olaia Erbitik adierazi digunez.



Ori! iretzia, ta gero izein tziren, bueno, auniz klase, ta mateute apezak? itten tzuen eliz atarien, denak, intxustiak loturik? zea, olaxeko zama atzuk, zama batzuk ola... olaxe, ba, iretze pixkoat. Geo, lizerra igual, ta gaztaño're? ostoa, adarrak eta olaxe, bedeiketzeko. Ta, apezak? San Juan egunian beiketzen tzun ure apezak. T'ore? ore bedeiketzu oi? urte atez eon bear tzuen itxan, t'urru-, urren urtean? San Juan bezperan? erretzen tzien oiek. 'San Juan belarra' erraten tzako orrei, apezak ya bedika tzazke ore. Ore? zuk erran duzune? izeten da sarna do... ernea're ez sartzeko (...).

– **Eta, 'sarna fuera, San Juan bezpera' edo, ez zen erraten?**

Bai, 'San Juan bezpera', bai.

– **Hori erraten zuten?**

Ba, garbiki.

– **Eta zer gehiago?**

Zer geiao? eta gero, saltando, denak, itxeko familiz ez... sue pasten tzen, denak! suen salto pastu, gero inguru bueltaka ibili. Orrek zeait, zebait beño geixo bazun orrek, gauze orrek, (...), enfermedadie ez sartzeko aziendetan edo, sarnandako zeait bazen, t'ori paatzen zuten or belar, bedeiketui, ortotsik t'an ta igual e... igual aire gaixtoa igual atzemaiteko, itxeari biño agiz obeto eozein gauzei, ta partitu belarr oitan? orrek, ez men tzun uzten belarrek aire gaixto pastea, itxan. Dena partitu! leiotan o ataietan o olaxe, parti zuten?... 'San Juan belarra', beinketue. T'eda zuten? ba olai-, olaxe, artu olaxe, pixkaitto at? olaxe artio ta? ta, urte oso, osoko...

– **Ferra batean edo?**

Nunai! nunai; batek olaxe sartu eun betean, ya, atarien edo... leioan! nunai tte, ta gustotxoa antxen bear tzuen leioa, nai ezpeitzuen aire gaixtoik... yotzen; ortarako.

– **Animaliak-eta benedikatzen zituen apezak?**

E! animaliak ez-ez-ez, ez, neski ezetz, neski ez. Animaliak gero, esto... Sanantontan, también, bedeiketzen tzie elizen. Ori... nai zuenak txokolatea, nai zuenak nara(n)ja, nai zuenak... maize! ogie, yanak bedeikat-, bedeiketzen tzuten, apezak. Ta gero ore, bedeikatute, ematen tziote aziendai.



Argazkian, gurutze txiki baten azpian eta orbelaz inguratuturik, Aingiriturri ur sendagarrien aska ageri da, Anotzibar inguruko herrietan ere ospe handikoa. INIGO IBARRA



– **Hara! txokolatea eta hori ere bai?**

O sea, txokolatia? gizonendako, ta berze oiek o, ogie ta ogie ta ere? famili guzie? denek, olaxe, puxket, denak probatu bit-, bitbite. Danek probatu pixke et'ola, bedekatue, probatu bear da arara.

– **Eta, animalendado zer...?**

Animalandako maize.

– **Maize, e? eta zer beste?**

Maize? geo patata etze, maiz, maize kenduri(k). Maize oiendi ematen tzen neski.

– **Eta, malkarra eta alolba eta...?**

Ez e, ori ez, ori ez, ez-ez-ez. Maize, maten tzen, granoa, kozkorra, ta gero... kozkorra dena kendu granoai, te gero aziendai deneti, probatzeko eman, maize! Ya, pixk-, batek pixka batekin, proatu. T'ogie igual, ogie ere, sobratzen tzena, urte gutzie, an aldatze? u! beste urterako. Ogie bedekatzen tzen apezak³¹ etzen bein' e roritzen; lenbixko eunian bezala egoten tzen ¡blanco-blanco-blanco! zenbait e... ro(r)itze emateko, ogia.

– **Eta, ez zen biltzen lore edo landarerik eta... gaitzendako?**

Ez-ez-ez; beste ja ez, ez-ez-ez-ez-ez, beste ja e. Oiek, gauze oiek etxen? ni gaztia nintzelaik, orai ezta ja ere. Orai denak kendue tie gauze oiek.

– **Ez zen belarren bat egosten edo, flemonendako edo?**

Ez, ez, neski ez, nik aitzea bau(t) piño neski ez. Errataute, bai, egosten tze-la... flemonandako ta garue? bai, belarra egosten tzela, denbora batean bai! biño nik eztut zautu... gauze oiek.

EGUARATS ~ATETZ~

Maria Marturet Goldaraz, 1912

aita: Eguarats / ama: Beuntza

25. Eguaratsen *sarna fuera* leloa baizik ez (1990)

– **Aizu, San Juan bezperan sua egiten zen?**

Bai. A! oraik ere saiatze itten. (Bilobari): El día, por San Juan ¿ya hacen fuego, en la calle, Xabier?

(Biloba): Nosotros solemos hacer.

¿Soléis hacer? Aaa! ok, biño. Y saltar por encima; ‘Sarna fuera’ solíamos decir.

– **Bai? eta hori besterik ez? hori bakarrik?**

Ori, ‘Sarna fuera!’ ta, salto ola...

– **Eta ‘San Juan bezpera’ edo?**

Bai, bezperan bai.

– **Bai, baina ez zen esaten ‘Sarna fuera, San Juan bezpera?’**

Ez-ez, ori bak, ‘Sarna fuera’, bai. Jajajaja!... ¿ya decíais vosotros eso, mi chico?

(Biloba): No.

Saltar por el fuego y decir ‘sarna fuera’. Ajaja! orai galdu de dena!... jo! orai, lenao, zer gauzi? majoak alare iten tzuten, biño orai, dena maldad, dena... zikinkeri da orai mundu ontan; jajaja! ezta ala?

AROSTEGI ~ATETZ~

Angel Elizondo Redin, 1906

gurasoak ere, biak arostegiarrak

26. Arostegin ere ohiko kontuak eta inguruko iturrien ospea (1990)

– **San Juan bezperan sua egiten zen?**

(Gaizki ulertua, antza): Ez! orduen eiten giñuen sue.

– **Non egiten zen?**

Atari guzitan.

– **Eta, su egiteko zer biltzen zen? arramak edo?**

Ez-ez-ez, ori... nola da? ze o... uskeras? ‘helecho’, aletxo? euskeras...

– **Iratzea edo?**

Iratzia, iratzia.

– **Hori ekartzen zenuten, e?**



Bai-ba; ori? zen bendi-, ori... bedeiketue. Bat e, zarra, berrie utzi? ta zarra... erre, San Juan bezperan.

– **Eta, mutikoek zer egiten zuten? salto?**

Salto, salto.

– **Eta, zerbait erraten zen?**

Bai, nola?... ba! ori e segun errie; emen, ‘Sarna fuera, sarna fuera’.

– **Zer bertze?**

A! saltatzen? ‘Sarna fuera’, ta fuera.

– **Eta, ‘San Juan bezpera’ edo ‘viva San Juan’ edo?**

Ez-ez, ‘Viva San Juan’ bai, beño... San Juan? ori, ‘Sarna fuera!’, saltatu te fuera. Joño! ori... atari guzietan. A, oai, guardatzen tzuenak, etzuenak guardatzen ez, biño guardatzen tzuenak, ori, iretzia, erretzen tzuen orduen. Bediketzen tzuen, zein, zein erreko, zeini... San Juan bezperan erretzen tzien.

– **Izkin honetan jarriko gara pixka batean, motozerra horrek zarata handia egiten du eta...**

Ya.

– **Hemen izan da iturriren bat...?**

Iturrie?

– **Bai, enfermedadeen kontra edo hola?**

Ez, ez,

– **Hor, Anotzibar eta Anotz inguru horretan bada zerbait...**

Bai.

– **Joaten zineten?**

Ez, bai! arata yoaten tzien.

– **Eta, zer aditu duzu hortaz? noiz joaten zen edo zer egiten zen edo...**

Pues, San Juan bezperan! San Juan bezperan yoaten tzen (...).

– **‘Argiliturri’ edo? (izen desitxuratua eman genuen)**

Eztaikit nun, nik. Anotzen ondoan zen. Anotzibertik goiti? Anotzen... ondoan. Bai, eztaikit nola... Aingiritturrie.

– **Eta, zer egiten zen? hara joan eta...**

Area? ta... ure artu.

– **Ura hartu?**

Bai, bai.

– **Eta, zerbait utzi edo?**

Ez, ez; bueno, uste u(t) paietz, e? uste u(t) paietz, uzten zutela... dirue botatzen tzen, putzurre, ta an, an gelditzen tzen.

– **Eta, nork biltzen zuen diru hura?**

Ore? pues, eztaikit nork bilduko zuen, ori, ango apezak, bilduko zuen, seguro, seguro.

– **Anotzibarkoak edo Anozkoak?**

Anotz, eztaikit zen Anozkoa edo Anoziberkoa; igual zen... Anoziberkoa, e? eztaikit seguro.

BERATSAIN ~ATETZ~

Martin Iribarren Sagardia, 1902

aita: Beratsain / ama: Orokieta (Basaburua)

27. Beratsaingo sanjuanetan sahatsak bedeinkatu gurutzeak egiteko (1985)

Hacían muy buena hoguera...

– **Han ere egiten da?**

Egiten dee, ta an itxeko atarien, onduen, ezpazen peligroik su artzeko. Pues itxetan, bakotxak iten tzuen sue, denetan, ta erri guzietan.

– **Eta, gero mutikoek, zer egiten zuten?**

Saltatu! ‘Sarna fuera, San Juan bezpera, sarna fuera’.

– **Hori erraten zuten? hori besterik ez?**

Ori besteik ez.

– **Eta, ez zen bedeinkatzen estrabilea, iratzez edo...?**

E... peligratzen balin (...), etzen itten, aparte, peligrotik apartexago.

– (...), **nola da euskaraz?**

Saratsa; makil betzuk ola, oik denak, ola, ta aietatik ebaki, te ore lertu, ta azala utzi, exkin betean, ta batek kendu puxkat, ola, luzea, eta artatik sartute gurutziak iten tzien. Te gurutze oiek jartzen tzien gero, alorretan,



garietan, gari aren izandu lekuetan? an sartzen tzie. Oiek? gurutze oiek? bedekatui(k) izen dee emen, bai, San Juaneko bendikazioaki.

– **Eta, erran duzu hori dela ‘sahatsa’?**

Sagatsa.

– **Baina, hori ez al da ‘sauce’ edo horrelako zerbait?**

Ez, ez, ez; saatsa; oiek erreka bazterretan ta, zeat-, azten da asko ortatik. Klase asko ateatzen dia: sagatsa, zuendurre³², urritze, ta, asko izeten die, uelde bazterretan.

AGINAGA ~GULIBAR~

Manuel (1922) eta Juan (1923) Larunbe Aizkorbe
ama: Aginaga / aita: Izurdiaga (Arakil)

28. Gulibarko Aginagan ere sahatsak ebaki eta gurutzeak egin (1986)

– (...) **se bendecían unos palos?...**

Sí, saas, saas.

– **Sahats? ¿de sauce?**

En vasco no sé cómo es; ‘saats’ se llama aquí...

En el regacho sale, que saca la flor, una flor blanca muy pronto.

– **¿El saúco será?**

No, no, no, sabuco no, el otro.

Sabuco es otro, sabuco es sautsa o de ese otro, es otro.

– **‘Sahats’, para mí es ‘sauce’, pero (...). ¿No serán juncos?**

No-no-no, los juncos el día del Corpus, ya no existe aquí eso, pero ya hay pueblos que sí, que aún sigue, y se echa por las calles.

– **El caso es que es ‘sahats’, ¿no?**

Se hacía, pa cada uno, uno, un palo de esos, y se llevaba en un fajo, y el cura bendecía, y a la salida de la iglesia cada uno cogía su palo y venía a casa. Y con ese palo se hacía unas crucicas, tajar y se hacía unas crucicas y

32 ‘Zuhandor’ da hori, gazt. ‘cornejo’.



Otsakarko Loperenean erainotz-sorta ageri da ohikoak ez diren eukalitiekin batera. KOLDO ARTOLA



se ponía, un juegoico de helechos y... la crucica esa en cada pieza de, que había trigo, contra la piedra o (...). Ya, eso ha desaparecido pero, yo he conocido eso.

– **Los mozos, cuando saltaban por encima de la hoguera ¿qué decían?**

‘San Juan bizpera, sarna fuera’.

– **¿Y algo más?**

No, yo no he oído.

Aquí una señora ya... muy mayor, solía brincar: ‘San Juan bizpera, sarna fuera’ y, brincaba ella por todo, ya me acuerdo yo. Y se hacían, al punto oscuro, en todas las... en todas las puertas había fuego.

– **No añadía nada, ¿e?**

No, no.

BEORBURU ~TXULAPAIN~

Esteban Garbisu Aranguren, 1911

aita: Beorburu / ama: Uharte-Arakil

29. Beorburun ere San Juan eta San Antonen arteko nahasmena ageri (1985)

– **A! bedeinkatu edo, eta horrekin estrabilera joan eta...**

Aspaldian eztuu in, ori ya atzenduik dao.

– **Pixka batez oroituko zara...**

Iretzea? pues, San Juan eunian, o San Juan bezpera, erretzen dera ta, a... ori? arreki... itten duen... autse? guardatu, t’orreki itten zaiote beien ta... beien ta... ori, gañen, ta paatzen zaiote...

– **Barratu? zabaldu edo?**

Zulderrak... oiek ez itteko. Orai aspaldi eztuu kasu itten, porke oiek ya, dena... gauze oiek itten ez, ez zittuenak? oi-oi-oi!...

– **Eta, orain, berriz, inok ez du egiten eta...**

Ez; akaso? oñik Beuntzen ta orain... iñen dire zerbait, biño erri ttiki oke-tan ya...

OTSAKAR ~TXULAPAIN~

Fermina Goldaraz Zubieta, 1902

aita: Otsakar / ama: Atallu (Araitz)

30. Otsakarren ere antzeko ohiturak, begietako mina aipagai (1988)

– **San Juan bezperan egiten ziren suak, ezta?**

Bai, bai, bai, bai.

– **Eta, muttikoek salto egiten zuten haien gainetik?**

Bai.

– **Zerbait erraten zuten?**

‘San Juan bizpera, sarna fuera’.

(Alaba Conchita, Gerendiaingo ultzamarra): ‘Sarnak eta miñek fuera’.

– **Hori ere bai?**

Bai, bai, bai.

– **Otsakarren?**

(Alaba): Osakarren, Osakarren.

– **Orduan zuk aditu diozu amari, ezta?**

(Alaba): Sí-sí-sí-sí: ‘San Juan bizpera’, esto... ‘San Juan bezpera, miñek eta sarnak fuera’. Cuando se saltaba a la hoguera. Y a nosotros nos han enseñao y continuábamos con esa musiquilla, eso sí. Y se llevaban, rosas a bendecir, rosas, ¿helecho? rosas, que era para el mal de ojos, y que también nosotros hemos llevaö, porque ha llevaö la mamá aquí, rosas, el helecho y unas hojas de... ¿cómo se llama eso de, de flores blancas?...³³ que hay muchas por todos estos orillos, aquí. Y eso es lo que se llevaba, que hemos llevaö nosotros también a bendecir, eso.

– **Alorrek bedeinkatzen ziren?**

(Alaba): Sí, sí, denak, sí-sí-sí. Y luego se hacía... cuando la, aquí se hacía, por ejemplo, pues, cuando los evangelistas, y allá igual, e?

– **Segi, segi euskaraz, segi, Conchita...**

(Alaba): San Mateo, San Marcos, San Lucas y San Juan... besteki, jaja!



– **Ezin dut zurekin, e? ez izan beldurrik...**

(Alaba): Ez-ez-ez-ez. Y... se llevaba, y entonces es cuando se bendecían las piezas, y cuando viene San Miguel. Y después, el día de Jueves Santo, se hacían las catorce cruces, pero...

– **Oi! hori bai polita euskaraz kontatzeko!...**

(Alaba): Con, se hacía con, ¿cómo se llama esto, que hacen los críos txulubitas? ¡con mimbres! y después de bendecir eso en la iglesia, porque en la iglesia ya sabes que se hacen fueguilles, ya por Pascuas, se cogen y se pone; el amo de la casa va y va llevando por to-, iba llevando por todas las piezas, las cruces esas, las catorce cruces, y después, se traía un poquitín de brasa, y se cogía y se tiraba al fuego, y luego, la otra del fuego, se tiraba por la ventana.

¡Aja! serán cosas muy eso; yo continuó haciendo, e? yo, me voy la, el día de eso con el fueguillo de la iglesia, me cojo mi cacharrico de fuego y ¡hala! ¡venga, todos los males por la ventana! ¡fuera!... Y ¿después? esto... por ejemplo, esas cruces se ponen ahora en la ventana, en, durante el día de Ramos, que se decía, en aquellos entonces, nos contaban a nosotros, que era contra las tormentas. Y como a mí me asustan mucho las tormentas, aun y todo en todas la ventanas una hoja de, una hoja de... de laurel. Jeje! mira aquí, todavía los ramos, en todavía los laureles sí que bendecimos aquí, e?

– **Aizu, zure ama euskaraz ari da eta... hori, kontatu duzun hori guztia oso polita da, bai; ea, ea...**

(Alaba): Eztakitela, eztakitela!...

– **Bai, lau ebanjelariak eta hamalau gurutze eta.....**

(Alaba): Ez, eztakitela, ez, eztakitela, ya te digo. Oi? nuestro abuelo hacía y el papá también, y claro, alguna historia y después se ha quitaö. Ahora ya las, cogen estas palmas compradas? y llevan pero, yo no, yo traigo hoja de laurel, igual, laureles, por toda la casa ¡venga! por todos los balcones, laureles por todas las ventanas.

OTSAKAR ~TXULAPAIN~

Manuel Egozkuezabal Galain, 1906

aita: Nuin / ama: Nuin

Sanjuanetako sua eta ohiko leloak (1988) «x

– **San Juan bezperan, zer egiten zen?**

Hoguera.

– **Euskaraz, sua?**

Sue.

– **Zenbat su egiten zen herrian?**

Gutti, errie es pequeño, no, errie no hay, que era pequeño, el pueblo...

– **Ttikia zen? ttarra?**

Ttarra.

– **Baina, zenbat su? hiru edo bortz edo...**

Solía decir mi abuelo, solía decir: ‘Sarna fuera! San Juan bizpera, artoa Nafarrora ta’... no sé otro lo qué, ‘garie Nafarrora ta artoa Franziera’.

– **Zure aitatxik erraten zuen hori, e?**


‘Sarna fuera! San Juan bizpera, garie Nafarrora ta artoa Franziera’. Eso solía cantar el abuelo, que era padrino pa mí.

– **Kontxo, kontxo; ikusten duzu nola ateratzen diren gauzak?... Eta, etxe guztien atarietan egiten zen sua? ¿en todas las casas se hacía fuego?**

Aquí, en el pueblo, en el medio-medio, en el pueblo en un... en un fuego grande.

– **¿Uno sólo? en otros pueblos dicen que en la puerta de cada casa.**

Ahí en, en el medio del pueblo, pa todo el pueblo; ¡una grande!





LARRAIOTZ ~TXULAPAIN~

Celestino Labaien Erburu, 1912?

aita: Lete (Ollobar) / ama: Ballariain (Antsoain)

Sanjuanetako leloa soilik (1988?) ❖

Sarna fuera, San Juan bezpera.

BELTZUNTZE ~TXULAPAIN~

Félix Ekiza Garbisu, 1918

ama: Beltzuntze / aita: Beltzunegi (Esteribar)

Sanjuanetako inoizko ohituren azken hondarrak (1988) ❖

‘Sarna fuera’ sí, pero más no. Mejor está lo que te dijo ese Labaien.

– ‘San Juan bezpera’?

Sí, mejor está eso.

– Eso no se decía en Belzunce?

No, no, acordándome yo no, más que ‘Sarna fuera!’

UNTZU ~TXULAPAIN~

Bernardina Gindano Latasa, 1892

ama: Untzu / aita: Espartza (Galar)

Arakil-Itzako leloa Ezkabarteko muga ondoan birraurkitua (1986) ❖

Girigili martxo, egun da San Juan bezpera, sarna fuera, ogi ta ardo Nafarra.

ANOTZ ~EZKABARTE~

Celedonia Zenoz Arze, 1908

aita: Anotz / ama: Erripa (Odieta)

31. Ezkabarteko sanjuanak Anotzen (1984)

– **Eta, gero, San Juanez, lehen erran duzuna bera, nola egiten zenituzten paxuak eta...**

Ta, erran dizut!

– **Baina, baina euskaraz...**

Pues uskeraz errat-, eztitut erran, nola? ¡oi Dios del alma!

– **Ez-ez, hori erdaraz kontatu duzu. Ea, ea, San Juan egunez zer egiten zen?**

San Juan egunien yoaten tzen mezara, eta... ematen tzen paxue, eta... apezak? e... bediketzen tzue; ta gero artu paxu ure ta karri itxera, ta uzten tzuten... sekatzera. Aitek, erran dizuten bezala, paratzen tzuen, elorrie? ta... eltxaurre! eta...

– **Eta, iretzea?**

Iretzea; t'an, paratzen tzuten... an.

– **Atarian?**

Atarien? bi aldetan, bi... bi ramo.

– **Non sujetatzen zituen? non tartekatzen?**

Pues, herra-...

– **Ferraren batean edo?**

Ferra, ferr artan! an, sartzen tzuen manu ät³⁴...

– **Bai, lehendik atarian itzaturik zeuden zaldi-ferra batzuetan, ez?**

Bai, zaldi ferrak? an, sartuik, bi aldeta, eta gero? sartu ore an, ta tiretu... goi äxki.

– **Goitik edo beheitik?**

Goitik... beiti! sartu? te... an gelditzen tzen ore sujeto.

– **Eta, paxua nola egiten zuen?**



Paxue, pues, paratu lurrian? ta bota e... aietaik? eta gero at-, soka bateki, lotu? te eman, eta ekarri igual.

– **Eta, hori zertarako zen, zertarako paratzen zuen atarian, edo zer erraten zuten orduan?**

Nik eztakit ori zer, ya... ori zen... gostunbrëa, paratzeko? ta... nere aitek paratzen tzue. Zendako, que no me pregunte más que tengo la cabeza tonta.

– **Eta, hori San Juan egunez egiten zen, e?**

San Juan egune.

– **Eta, San Juan bezperan, bakar-bakarrik sua?**

Ue sua bakarrik, sue³⁵.

– **Nork egiten zuen?**

Edozeñek!

– **Gazteek eta horrela?**

Denek, gazteak eta zarrak eta denak, sue in? te... an, gazteak saltatu.

– **Horretarako, lehenik bildu egin beharko zuten...**

Pax ure erretzen tzuten! pax ure erretzen tzuten zarra, eta gero...

– **Aurreko urtekoa?**

Aurreko urteko zarra? erretzen tzuten an, ta gero? nai zuenak? e... su geiao? pues ematen tzuten, abarrak o... egurre o... cada uno lo que quería. ¡Que no puedo!... hablar en vasco.

– **Baina, gehienbat haurrak izanen ziren horrelako abarrak-eta ekartzten zituztenak, ez?**

Bai! aur beño... geiagoköak, amar, ameka urteko...

– **Mutil eta neska gazteak...**

Eeee!... ori.

– **Eta, non, nola egiten zen, plazan edo han, etxe tartean?**

Plaz- ta... atarien.

– **Etxe atarian?**

Itxe aterien.

– **Etxe guztietan?**

35 Besterik ere egiten zen, halere, Anotzibarko Aingiriturrira joan, esaterako, berriemaileak berak geroxeago esan zuenez.

Ez! iten tzuten batëan o biden, ta gero yoaten tziren, itxe batetik bertze-
ra, yoaten tzire saltatzera.

– **Eta, zein ordutan egiten zuten hori?**

Arratsean! lanetik tortzen tzienian.

– **Eta, orduan egiten zuten salto suaren gainean?**

Klaro!

– **Eta, orduan erraten zuten...**

Orduen erraten tzuten: ‘Sarna fuera, kaiku te ganbela pera, Nafarroko
gari guzie kur itxera’.

– **A! hori ez duzu lehen erran...**

Orai, orai oroitu näiz.

32. Anoztarrak Aingiriturrira pikorrek sendatzeko (1985)

Bidian... zen, Aingiliturri, nere errittiken? yoaten giñen Anoziberra, ta
bidëan... zegon, dago, bidían dao. Eta... San Juan egunen? pues... San
Juan bezperan? yoaten tziren erri... bi errietako yendeak, eta... an iten tzu-
ten sue, ta an pasten tzuten gaue. Ta gero, bira-... biramonian? artu urre,
(zuzenduz): ure, andik? eta yoaten tzien... itxera.

– **Eta, ur hori zertarako biltzen zuten?**

Pikorrek eta, atratzen tzienian, pues... garbitu arreaki? te sendatzen tzire.

– **Eta, jendeak, ura hartzean, zer egiten zuen?**

Dirue? yoaten tzienian? segidoan? igual botatzen tzuten; gero...

– **Zer bota?**

Dirue, dirue botatzen tzuten, segidoan, segien...

– **Eta, nork hartzen zuen?**

Pues... gero pasten baziren... pobrëak! pobreak, pasten baziren ta, balin
bazegon an dirue? artzen tzuten ta yoaten tzire. Ezpe-ta... apeza pasten
tzenëan? gure erri(r)a meza matera? orduen, balimezen dirue? arrek ar-
tzen tzuen ta, meza ateko.

– **Eta, apezak ongi ikusten zuen kostunbre hori? bai, horrela zen,
ezta?**

Pasten tzen andik, an ini tao bidia? da andik pasten tzen, ta barni-... beire-
tzen tzuen? balimazen? artzen tzuen; ezpaze...



– **Nola dago orain iturri hori? erran duzu azken aldian zementoz edo, zerbait egin zutela...**

Bota zuten zementoa baño, yo en vasco no sé decir ‘cemento’.

– **Bueno, pues cemento, ‘zementua’, e?**

Bota zuten? inguruen ola, zementoa, ta gelditzen tzen... bajoago... ¡Claro! si no, está a pie llano y si no, al echar el cemento queda un poco más... alto, y...

– **Eta, iturria bide ondoan dago? ala bidetik pixka bat aparte?**

Bidean! emendik pasten da? ta emen dao.

– **Eta, orain kasu egiten zaio?**

(Hortzez ezezka): Oai ezta... iñor ere yoaten arara, iñor ez.

– **Zenbat urte du ya ez dela segitzen?**

Pues... llevo yo aquí 48 años y no he pasao de allí, en 48 años... Ogei, berrogei... zortzi, berroete zortzi urte.

– **Eta, orain ez da kasik ikusten, ezta? erran duzu jana dagoela edo, ez? sasiak direla eta...**

Sasiak, sasiak eta... ego-, egoin dire? dena artuik.

– **Sasiek, ezta?**

Sasiek, sí.

SORAUREN ~EZKABARTE~

Joaquin Orradre Murillo, 1902?

14 urteetan inguruko herriren batetik heldua

Ezkabarten ere San Juan eta San Pedro nahasirik (1985) ■×

Sarna fuera, fuera sarna, viva San Juan, viva San Pedro, vivan todos los santos que están en el cielo, el que está dentro que salga fuera.

GASKUE ~ODIETA~

Modesto Arze Muskiz, 1922

ama: Gaskue / aita: Eltzaburu (Ultzama)

33. Odietako Gaskuen, sanjuanetan, sua egin eta *Urrin belar leloa* (1987)

– **San Juan bezperan, sua egiten zen?**

Ori bai, suen, sue bai, te suen... saltatu in biar diau.

– **Eta, haren gainetik salto egitean, zer erraten zen?**

San Juan... e sua? o, nola zen? espera, espera, 'Urrin belar, sarna fuera, onak barnera, gaixtoak kanpora, San Juan bezpera'... ajaja!

– **Hara! polita da; nola erran duzu? 'urrin bera'?**

'Urrin belar, gaixtoak kanpora, onak barnera, San Juan bezpera'... no, no, seguir, que después no puedo y se me olvida!

– **Bai, erran duzu lehen, bai.**

'Urrin belar, sarna fuera, onak barnera, kanpok-, kanpora, San Juan bezpera'.

– **Gaixtoak kanpora?**

Bai, gaixtoak kanpora, San Juan Bezpera. No es así, pero...

– **Eta, 'Biba San Juan' ez?**

San Juan bezpera? San Juan bezpera; emen, no sé si lo decía antes.

– **Eta, 'urrin bera? urrin gela?' (gaizki ulertua baikenuen) Hori zer da?**

Ori eztakit zer de(n), ori errautena...

– **'Urrin' zer da, usaina?**

Usaie!

– **'Urrin' da 'olor' hemen?**

Urrine? se dice, olor, usaye se dice; nik eztakit, ni ez nitzela enteratzen; ni ollar bustitute, ori, best'eunien? ta ori e, ola erten giñuen.

– **Baina hemen nola erraten duzue 'olor'? 'urrin' edo 'usain'?**

Usaie.

– **Eta 'urrin' zer da?**

Ni eztakit zer den, nik eztakit.

(Andrea): 'Urrin bera, sarna fuera'...

'Onak barnera, kanpoan gaixtoak'...



GASKUE ~ODIETA~

Eusebio Iraizoz Villanueva, 1912

aita: Gaskue / ama: Alkotsz (Ultzama)

Sanjuanetan: sua egin, belarrak bedeinkatu (1988) ◀×

– **San Juan bezperan sua egiten zenuten?**

Bai... ‘Sarna fuera’, bai; nola erten giñuen o? San Juan...

– **San Juan bezpera?**

San Juan bezperan sue, bai, ‘sarna fuera’ o bueno, uskeas, que decía... ordun txikirik giñan, erdeas iten giñuen neski. ‘Sarna fuera’.

(Emaztea): Y hacíamos los helechos, el víspera de San Juan, solíamos ir a coger al monte, bueno, al monte, por allí, coger por fuera, por el monte...

Sí, y se guardaban de un año pa otro.

– **Iretzea?**

Iretzea.

(Emaztea): Y los llevamos a bendecir, a bendecir, el día de San Juan bendecían, y luego, y aquello se guardaba. Y aquello bendecido el día de San Juan se guardaba hasta el víspera de San Juan del año siguiente, y entonces quemábamos los helechos bendecidos. Y saltábamos, todos por los, por el fuego.

Bah! lenao, de eso se guardaba (...), y luego, con esa ceniza, las vacas, estaraban en el monte, pero se recogían todas al pueblo? y a... en el hombre? la ceniza, con esa ceniza se les daba.

(Emaztea): Sí, pa que no se morirían, pa que estarían fuertes.

No, pa que no se les saldría, sarna... sí.



GELBENTZU ~ODIETA~

Pedro Oiarzun Orkin, 1925

ama: Gelbentzu / aita: Beuntza (Atetz)³⁶

34. Gelbentzun belarrak erre eta hautsak abereen artean bota (1987)

– **San Juan bezperan sua egiten zenuten etxe atarietan?**

Ooo! ba.

– **Zerbait erraten zen haren gainean salto egitean?**

Ba, eztakit, ori ba, eztakit.

– **‘Sarna’ edo... zerbait?**

A, bai!... San Juan, nola zen ore? ‘San Juan bezpera, sarna fuera’ o zeat bat, ola tzen. Len tzeen, kreentziek olako, ezta zar antxetako, ferra... muturr aiek? an, leio arren, erdiko leio arren parean, ferrak, bi ferra, zaldi-ferra redondoak, paretean sartuik.

– **Ez dut, ez, ikusten.**

Erdiko leio aundi oi, azpiko aldean, atarien ta bestea.

– **A! bai-bai, begira nindagoen goiko...**

Ez-ez, azpie; or, or egiten tzuen, ordun makil te, itxe guziek. Or, makillon bat o burni o sartu izeten tzen ta, Sa-, San Juan bezpean, belarrak bediketzen tziren elizen, ara, ta or sartzen tzien, belar batzuk? eta, gurutzea. Ta, gurutze aiek? ba oroitzen naiz, alorretara, garie ta zein tokietara? ematen giñuzen? alor baktotxa bat, sartzen tzen, ori, arri-erauntsiek eta, kontra. Uzten tzien... fedea zuenak? iten tzie.

Ta gero, San Juan bezperan erretzen tzen belarra, arren autse, guk bekeñun abelgorriek, bizi dire... beiek eta idiek eta abelgorrie, giñuen orduen. Ta ayei egotzen zekion bixkerrea, auts oe... emen, ori... auste-re-egune, baite? ‘miércoles de ceniza’, guri botzen diuten bezala, San Juan bezperan botzen giñuena? abelgorriei, auts ortaik.

36 Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* izenburuko lanean gurasoen sorterriko datu horiek trukaturata ageri ziren.



Ta, oyen... tzimizte eta, orduen beti kanpoan ibiltzen baiziren, tzimizte ta. Yende askok irri itten du orai olako gauzek aittute; ordun, bereztat, serio (...), e? denbo artako yendeaindako? kuidaol!

– **Bai, orain ere ikusten dira hainbat etxe-ataritan arbolen azalez eginiko gurutzeak eta...**

Baite, baitte ere, oixe ba, gurutze oiek zien ba.

– **Bai, eguzkilorea deitzen dena ere ikusten da...**

Baitte, bai, bai... beño? orai raso kanbiatu de, ta ya...

LATASA ~ODIETA~

Martin Zenoz Elizondo, 1902

aita: Latasa / ama: Labaien (Malerreka)

Sanjuanetan sua eta belar-bedeinkapena (1981) ✕

San Juan bezperan... iten tzen? ata... belarrak? vamos, aurreko urtea... zeatan, ori, San Juan eunian, beinketu? eta urrengo urtean? sekatzten tzie-laik ya aiek, San Juan bezperan? erre atarien. Erre atarien? ta saltoka, sarna fuera! sarna fuera! oi, oi iten zuten, eki artan, eki artan? arren suaren ekëan? bai, ola. Pues ortan ja ez bertzeik.

ERRIPA ~ODIETA~

Luis Urtasun Pagoto, 1904

aita: Gaskue / ama: Muskitz (Imotz)

35. Erripan esaldi berezia eta iturrirako joera (1987)

– **San Juan egunean edo bezperan, sua egiten zen?**

Bai, ¡hombre! bai gizona!

– **Non egiten zen?**

Karriken; beire: San Juan eunian iten tzien bediketu... nola erraten diot arrei? aletxo, ure.

– **Iratzea?**

Iretzia, iretzia! ori. Ta gero? puf! aurten, bedeiketzen tzena? eiten tzen guardatu... suek itteko, biamonian, bertz urtian, ola, ta gero? ango... arreki? berri, ba, finketan? iten tzen, su pixkuat in, iretze pixk-, iretz arreki? su pixkuat, monttoka-monttoka? su pixkuat ta, or, joe ori! a la antigua, claro... bai-bai, t'ola, ta ...

– **Eta, etxe askoren aitzinean egiten zen sua?**

Bai, bai.

– **Edo su bakar bat herrian?**

Ez-ez-ez, itxe bakotxan? bere atarien? iten tzen sue; bakotxak bere itxean, atarien, ta saltzen, (zuzenduz): saltatu! gañeti, ta, ola ibiltzen giñen; eee!...

– **Eta, salto egitean zerbait erraten zen?**

A! espera, espera: 'To, to zarra ta karrak berrie' edo ola, así, una cosa, ola erraten tzen, olako zerbait. Bai, erraten tzen bai, bai-bai.

– **Ea, ea nola...**

'To zarra ta karra perrie, to zarra ta karrak berri'.

– **Eta, hori zer da?**

E? 'toma el viejo y dame el nuevo', erran nai du.

– **A! 'to zarra...'**

Tori zarra ta karrak berrie³⁷.

– **Eta, ez zen erraten 'San Juan bezpera' edo 'sarna fuera' edo?**

Baite're, bai-bai-bai, ore-ori, 'Sarna fuera' ere bai: 'San Juan bezpera, sarna fuera', ta... bai-bai.

36. Aingiriturriren aipamena eta Burdindogiko ermitaren berri (1987)

Aingiriturrie! Aingiriturrie aurki, bai-bai.

– **Eta, hor zer egiten da? zer egiten zenuten?**

